

Kirola

Mikel Bizkarra txirrindulari
mañariarrak Txileko Pino Road
taldeagaz hasiko du denboraldia > 13



Gabonak
2013



Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak BEC-eko finalera begira >11

> Iturriaga eta Elortza Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketa Nagusian
lehiatuko dira domekan, Bilboko BECen


> Esperientziadun bertsolariak dira biak;
Iturriagaren bosgarren finala izango da,
eta Elortzaren hirugarrena

Hanburgesategien irekieraren aurkako manifestazioa > 3

ELA, LAB, CCOO, ESK, EHNE, Ernai, Dendak
Bai eta Durangaldeko Bildu dira zapatuko mani-
festazioaren deitzaileak. Abadiñon Burger King
eta McDonald'sek zabaldu gura dituzten hanbur-
gesategien "zabor-janaren kontra" daudela diote.

Servini epaileagaz berba egin du Santi Uribek > 2

Buenos Airesera egindako bidaia "oso positi-
boa" izan dela azaldu du Santi Uribe Otxandioko
alkateak. Frankismo garaiko krimenen kontra-
ko kereila jartzaileak batzen dituen plataforma-
gaz bat egin du Uribek. Maria Servini epaileari
Otxandioko bonbardaketaren inguruko azalpe-
nak eman dizkio alkateak.



Durangaldea > 3

AP-8 autobideko beharginek
mobilizazioei ekin diete

Zaldibar > 4

Saihesbidearen proiektuagaz
jarraitzea onartu du udalbatzak

Mañaria > 7

40 postu jarriko dituzte zapatuan,
bigarren eskuko azokan

Iurreta > 7

Uralde hortz-klinikak irabazi du
V. Enpresa Proiektu Lehiaketa

Herririk herri

> OTXANDIO

“Bidaia honek auzi honetan akuilu lana egin izana itxaroten dugu”

Frankismo garaiko krimenak epaitzeko prozedurari sostengua eman dio Santi Uribe alkateak Argentinan

> JOSEBA DERTEANO

Argentinako hiriburura, Buenos Airesera, egindako bidaia “oso positiboa” izan dela adierazi du Santi Uribe Otxandioko alkateak. Frankismo garaiko krimenen aurkako kereilak jartzeko euskaldun eta espainiar askok bertara egin duten bidaiari sostengua ematera joan da udaleko ordezkari nagusi lez, eta baita Otxandioko bonbardaketaren gaineko informazioa eskaintzera ere. Bost egunez egon da Buenos Airesen: “Positiboa izan da bertan izandako kontaktuengatik, eta Argentinako epaile eta erakundeek erakutsitako konpromiso irmoagatik”. Ke-

reila jartzaileak batzen dituen Euskal Plataformak askotariko erakundeei luzatu zien gonbita, eta Otxandioko Udalagaz batera, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko ordezkariak joan dira, besteak beste.

Buenos Airesen, Uribe alkateak Maria Servini epailearekin aurrez aurre berba egiteko aukera izan zuen. Iazko, mozio batean, besteak beste, bonbardaketako biktimak salatzaile partikular modura aurkeztea onartu zen, aho batez, udalbatzar batean. Eta bertan onartutakoa da Serviniri gogorarazi ziona. Horrekin batera, bonbardaketaren gaineko xehetasunak

eman zizkion. Era berean, azken urteetan udalaren bultzadagaz landutako ikerlanen dokumentazioa eta Andikonako Adierazpena eman zizkion eskura Uribek Serviniri, eta auzi honetan azkenera arte jarraitzeko eskaria luzatu zion.

Senatuko ordezkariekin

Euskal Herrira itzuli aurretik, Argentinako hainbat erakundetako ordezkariekin egoteko aukera izan zuen Otxandioko alkateak. Senatuko ordezkari batekin eta Argentinako Kongresu Nazionalako Giza Eskubideen Batzordearekin, besteak beste. Prozesu honi bultzada emateko eskatu zien alkateak.

Horiek horrela, Argentinara eginiko bidaiak “auzibide honetan akuilu lana egin izana” itxaroten du Uribek: “Auziak bultzada berritua hartzeko balio izana espero dugu, gure herriari, eta orokorrean sasoi hartako biktima guztiei, zor zaien justizia eta erreparazioa gauatzeko bidean urratsak ematen jarraitzeko”.



Santi Uribe alkatea eta Maria Servini epailea berbetan.

Baserriko produktuekin eta artisautzakoekin osatutako azoka

> J.D.

Otxandioko Kementsu elkar-teak baserriko produktuen eta artisautzaren inguruko azoka antolatu du domeka honetan, 09:00etatik 15:00etara. Aurten 13. aldia izango du. Guztira 44 saltoki banatuko dituzte udalatxe aurreko plazako luze-zabalean. Baserriar ekoizleek 22 postu izango dituzte, eta artisauek eta Otxandioko elkar-teek beste hainbeste. Askotariko produktuak egongo dira salgai: baserriko ogi eta pastelak, barazkiak, gaztak, barazkiak, txerrikiak, eztia, fruta, sagardoa eta txakolina, besteak beste.

Azokaren harira, bestelako ekimen eta erakustaldiak antolatu dituzte. Falkoneriari lotutakoa da bat: ehiza-hegaztien gaineko erakusketa egongo da, eta hegaztiekin erakustaldiak ere egingo dituzte. Bigarren erakusketak ardiak izango ditu protagonista: lehenengo, ardi latxen, muturgorrien eta muturbeltzen erakusketa egingo dute, eta, ondoren, artile moztaileen erakustaldia eskainiko dute aditu batzuek.

Ekitaldi horiez gainera, ta-loak eta pintxoak dastatzeko aukera egongo da, eta goiz osoan jai giroa jartzeaz arduratuko dira trikitilariak.

> MALLABIA

Mapa toponimikoa aurkeztu dute Mugartza eta Azagirrek



Mallabiko kultur etxean aurkeztu zuten toponimia mapa.

> BERRIZ

Erabakitze eskubideaz ariko da Mario Zubiaga

Zubiagak bihar eguerdian emango du hitzaldia

> AMAIA UGALDE

Kantxa zati bat ekimenak antolatuta, *Lehenengo erabakia eta gero eskubidea* berbaldua eskainiko du bihar, 13:00etan, Mario Zubiaga EHUKo zientzia politikoetako irakasleak, Kultur Etxean. Bere diskurtsoan Zubiagak autodeterminazio eskubidearen eta erabakitze eskubidearen arteko desberdintasuna azpimarratzen du: “Autodeterminazio eskubidea herri bati kanpotik datorkion zerbait da; erabakitze eskubidea, berriz,

komunitate politikoko kideen esku dago”.

Herri bazkaria 29an

Abenduaren 29an urte bat bete-ko da erabakitze eskubidearen aldeko manifestua aurkeztu zenetik Berrizen, eta hori ospatzeko, herri bazkaria antolatzen dabilta *Kantxa zati* bateko kideak. Egun horretan, 2014ko ekainean Durango eta Iruñea batuko dituen giza-kateari buruzko informazioa emango dute, besteak beste.

> JONE GUENETXEA

Hainbat herritar bildu zen azaroaren 3an Mallabiko toponimia maparen aurkezpena. Gainera, hitzordu horrek Euskararen Egunarekin bat egin zuen.

Ekitaldian Mila Mondragon alkateak, Mikel Gorritxategi Euskaltzaindiaren Toponimia batzordeko buruak, Felix Mugurtza Dunba argitaletzeko arduradunak, eta Peio Mugartzak eta Justo Azagirre egileek parte hartu zuten.

Urtebetetik gora eman dute Mugartzak eta Azagirrek Mallabiko toponimia aztertzen. Auzorik auzo hainbat bisita

egin dituzte informazioa batu guran. Herriko toponimia mapa osatzeko 108 pertsona inkestatu dituzte. Gutxi gorabehera, 3.000 toponimo bildu dituzte. Gainera, urriaren 24tik 31ra erakusketan antolatu zuten, toponimoen arloan herritarrek ekarpenak egin zituzten.

Herriko toponimia mapa osatzeko proiektuaren bultzatzaileek 108 pertsona inkestatu dituzte

> ATXONDO

Enpresa hitzarmena sinatu dute Cemosan

Hitzarmen berri bat adostu arte aurretik zegoena mantendu egingo dutela adostu dute, besteak beste

> J.D.

Azaroaren 22an sinatu zuten hitzarmena, langileak hiru egun geroago hastekoak ziren greba mugagabearen atarian. Lan erreformatik babesten dituen hitzarmena dela adierazi du LAB sindikatuak.

Hainbat puntutan oinarritzen da akordioa. Adibidez, lan erreformatik malgutasuna eskaintzen dio enpresariari lane-gunak moldatzerako orduan. Cemosan adostutakoaren ara-

bera, enpresak langileen jardun erregularra errespetatuko du. Bestetik, lan erreformatik dio hitzarmenaren iraunaldia amaitzen denean berri bat adosteko urtebeteko epea dagoela, eta Cemosan adostu dute hitzarmen berri bat adostu arte aurretik zegoena mantendu egingo dela.

Horrez gainera, KPIaren araberako soldata igoera, eta arrazoi objetiboek eragindako aldebakarreko kaleratzerik ez dela egingo adostu dute.

> DURANGALDEA

EAJri kritika, AHTagaz “dirua xahutzeagatik”

EH Bilduk ohartarazi du Eusko Jaurlaritzak 2014ko aurrekontuaren %60 AHTra bideratu gura duela

> MARKEL ONAINDIA

EH Bildu koalizioak agerraldia egin zuen joan zen asteburuan Tabiran, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen inguruko kritika bat plazaratzeko. Ohartarazi zuten Eusko Jaurlaritzak 366 milioi euro bideratu gura dituela 2014an AHTaren obrarako, hau da, aurrekontuaren %60. EH Bilduk uste du AHTaren obrek eragiten duten kostua zentzuba-koa dela, eta “dirua xahutzea” egotzi dio EAJri. Koalizioko legebiltzarkide Julen Arzuagak, Marian Beitialarrangoitiak, Laura Mintegik eta Rebeka Ube-
rak egin zuten agerraldia, Mañari-ko, Atxondoko, Mallabiko eta Zaldibarko alkateen babesagaz.

Horren atzean politika egite-ko eredu interesatu bat ikusten

du EH Bilduk: “AHTaren alde egiten dutenek gure lurraldea negozio gune modura ulertzen dute, ez bizitzeko toki modura”. Salatu zuten etekinak izan dituzten enpresek politikariak ezarri dituztela gero euren administra-
zio kontseilueta. “Eredu horri eusten diote Jaurlaritzaren aurrekontuek, eta guretzat guztiz onartezina da”.

Porlanaren aldeko apustua

Euren ustez porlanaren aldeko apustua egin da azken urteetan, eta natura kaltetu da horren ondorioz: “Garapen iraunkor-
ra, efizientzia, ingurumenaren zaintza, kontsumo arduratsua... Edozeinen ahotan entzuten di-
ren ardatzak dira, baina ez datoz bat egiten den politikarekin”.

Macdonald's eta Burger Kingi, “ez zarete ongi etorriak” esango diete

“Zabor-janaren kontra”, manifestazioa deitu dute hainbat eragilek biharko

> ITSASO ESTEBAN

Abenduaren 14an, 17:30ean ha-
siko dute manifestazioa. ELA, LAB, CCOO, ESK eta EHNE sin-
dikatuak, Ernai gazte erakun-
deak, Dendak Bai merkatarien
elkarteak eta Durangaldeko
Bilduko zinegotziek egin dute
deialdiagaz bat. Abadiñon ja-
tetxe bana zabaltzeko proiektu-
ak aurkeztu berri dituzten
“Mcdonald's eta Burger King
multinazionalen egitasmoek
eskualdean eragin kaltegarria
izango duela” adierazi gura dute
manifestazioaren deitzaileek.

Durangoko Ezkurdi plazatik
eta Abadiñoko Traña plazatik
abiatuko dute manifestazioa.
“Ez zarete ongi etorriak: gure
herrietako baserriak, denda
txikiak eta tabernak hondatzen
dituen multinazionalik ez dugu
nahi”, aldarrikatuko dute.

Otordu lasterren jatetxeen
“eredu horren aurrean, gure
apustua abeltzaintza eta neka-
zaritza jasagarria eta bertako
merkataritza dira”, azpimarra-
tu zuten manifestazioa iragar-
tzeko agerraldian. Abadiñon

jatetxe bana zabaltu gura duten
enpresa biek “zabor kontra-
tuak” egiten dituztela, eta “sol-
data miserableak” eskaintzen
dituztela ere azpimarratu dute
abenduaren 14ko manifestazioa-
ren deitzaileek.



EHNE eta LAB sindikatuak ordezkariek egin dute mobilizatzeko deialdia.

Autobideko beharginek protestak hasi dituzte

AP-8 autobideko beharginek jakinarazi dute enpresak makinak ipini gura dituela euren ordez

> M.O.

AP-8 autobideko beharginak
protestan murgildu dira azken
egunetan, euren lanpostuak
defendatzeko asmoz. Jakina-
razi dute Bizkaian zerbitzua
kudeatzen duen Gebisa enpre-
sak makinak ipini gura dituela
langileen ordez. Euren jasango
luketen kalteaz gainera, erabil-
tzaileak ere kaltetuta irtengo
liratekeela uste dute, zerbitzua-
ren kalitatearen beherakada-
gatik.

Udan jaso zuen zerbitzua-
ren esleipena enpresa horrek.

Beharginek txarto ikusten du-
te euren funtzioa makinekin
ordezkatzeta. “Baina txarrago
iruditzen zaigu makineria ges-
tionatuko duen enpresa bati
Aldundiak milioi askoko adju-
dikazio bat ematea”.

Espainiako lan erreformatik
babestuko dituen hitzarmen bat
ere gura dute, baina azaldu dute
enpresak ezezkoa eman diela.
Abenduaren 4an Bilbon egin
zuten manifestazioa autobideko
beharginek, eta hurrengo egu-
nean, Durangon, Durangoko
Azoka zegoela aprobetxatuta.

> GARAI

Balkoietako irudi sorta abenduan ere ikusgai

Zubiaurre anaien argazkiak daude balkoietan

> M.O.

Udaz geroztik Garain ipinita da-
goen erakusketa abendu amaie-
rara arte egongo da ikusgai.
Ramon eta Valentin Zubiaurre
anaiek egindako argazkiak
dira, eta herriko hainbat balkoi-
tan daude eskegita. Udalak eta
Gerediaga Elkartek prestatu
dute erakusketa.

Hasiera batean udarako eki-
mena zela uste arren, epea lu-
zatzea erabaki zuten, harrera
ona eduki zuelako. Eta abendu
amaieran, urtea amaituta, ken-

duko dituzte argazkiak. Ta-
maina handian inprimatutako
hamabi argazkik osatu dute
erakusketa.

Tamaina handian
inprimatutako hamabi
argazkik osatu dute
erakusketa

pintoreak ziren, baina Garain
erretratuak ere egin zituzten.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

“Mundu mailako ikuspuntu globala izateko lagundu didate.

Yao Yao,
Gastronomia eta Sukaldaritza
Arteak, 2. maila.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATE · ABENDUAK 14
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA
BIDASOA · ABENDUAK 14
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · ABENDUAK 13
Ostirala, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center
DONOSTIA · ABENDUAK 14
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ONLINE ATE IREKIAK
ABENDUAK 17
Asteartea, 18:00 (Euskaraz) / 19:00 (Gaztelera)
<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436
www.mondragon.edu/prest



> ZALDIBAR

Saihesbidearen proiektuagaz jarraitzea onartu du udalbatzak

Industriagunera doazen kamioiek herrigunea ez zeharkatzea da asmoa



“Herriko bizitzaren erdigune den Euskal Herria kaletik gutxinaka ibilgailuak kentzea” da helburua.

> ITSASO ESTEBAN

Duela legegintzaldi biko hasierako proiektuak zeukan helburu beragaz, “herrigunean trafikoa gutxitu, eta industriagunera doazen kamioiek herrigunea zeharkatzea ekiditeko”, saihesbideko obraren hurrengo faseari ekingo dio Zaldibarko Udalak.

Udal gobernuko Bilduko sei ordezkarien aldeko botoekin onartu zuten proiektu berria azaroko osoko bilkuran. Abstenitu egin ziren PSE-EE, EAJ eta PPko ordezkariak.

Jose Andres Urizar Hirigintzako zinegotziak azaldu zuenez, 312.000 euroko aurrekontua daukan egitasmoa da egingo dutena: “Duela urte batzuk aurreikusi bezala, 1.500.000 euroko inbertsioa eskatzen duen proiektua osatzeko dirurik ez daukagu, eta irtenbiderik onena haxe iruditzen zaigu”.

Gaztetxe pareko biribilgune-tik Autonomia, Askorra eta Foru kaleetara bideratuko dituzte

ibilgailu astunak, saihesbidearen obra hauek amaitutakoan. Horrela, “herriko bizitzaren erdigune den Euskal Herria kaletik gutxinaka ibilgailuak kentzea, eta gune seguruagoa bilakatzea” lortuko dutela uste dute.

Askorra kalean 20 aparkaleku kentzea, eta Foru kalean 30 aparkaleku berri egitea jasotzen du, besteak beste, proiektuak.

Udal gobernuko Bilduko sei ordezkarien aldeko botoekin onartu zuten proiektu berria plenoan

“Herriko bizitzaren erdigune den Euskal Herria kaletik ibilgailuak kentzea” gura dute

Hileta eta omenaldi zibilen ordenantza onartu dute

Pilotalekuaz gainera, hileta zibilak eta omenaldiak egiteko udalak beste lau espazio eskaintzen ditu

> I.E.

Bilduko sei ordezkariak bozkatu zuten hileta edo omenaldi zibilen ordenantza berria onartzearen alde, azaroaren 28an egingako osoko bilkuran. Abstenitu egin zen oposizioa.

Udalak arautu barik zeukan hileta zibilen gaia, eta Bilduren ustez, “beharrizana zegoen gaia arautzeko”. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, bi hileta zibil izan dira legegintzaldi honetan; Olazar pilotalekuan biak.

Pilotalekuaz gainera, hileta zibilak eta omenaldiak egiteko udalak erraztutako espazioak

Hileta zibilak egiteko espazio publikoak erabiltzeagatik udalak ez du tasarik kobratuko

zeintzuk diren jasotzen du ordenantza berriak: Zaldia eta Diputazio plazak, Santamañezar, liburutegi zaharra eta Goierriko artadia. Espazio horiek omenaldiak egiteko erabiltzeko, udalak ez du ezelako tasarik kobratuko.

Balendin Lasueni Ohorezko Lauaxeta saria eman zioten

Abenduaren 2ko Bilboko ekitaldian jaso zuen Lasuenek Lauaxeta saria

> I.E.

Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahal-dun nagusiaren eskutik jaso zuen Balendin Lasuen euskaltzaleak (Zaldibar, 1924) Ohorezko Lauaxeta saria. Euskal kultura bultzatzeko bizitza osoan Lasuenek egindako lana goraipatu zuen Bizkaiko Aldundiak sari banaketa ekitaldian. Euskararen zabalkundearen eta normalizazioaren alde egindako lan eskerga eskertu dio Aldundiak, sari berezi horregaz, Balendin Lasuen zaldibartarrari. Durangaldean, Gerediaga Elkartetik, besteak beste, Durangoko Azoka martxan ipintzeko eginiko lana

azpimarratu zituzten, besteak beste, Bilboko ekitaldian.

Ekainaren 1ean, bere urtegunean, herrikideen omenaldia

jaso zuen Balendin Lasuenek. “Herriaren alde bizitza osoan musu-truk egindako lana” eskertu zioten omenaldia.



Euskararen zabalkundearen alde egindako lan eskerga eskertu zioten Lasueni.

> ELORRIO

Hasi dira igerilekuak egiteko obrak

> M.O.

Hilaren 2an hasi zituzten, Elizalden, kanpoko igerilekuak egiteko obrak. Ingurua hesitu egin zuten, eta makinak lurrak

mugitzen dabilta. Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) adierazi du lanak ekainerako amaitzea aurreikusita dagoela. Hiru igerileku eta taberna bat ipiniko dute.

Proiektu honek eztabaida bizia eragin izan du herrian azken urtean. EAJren hauteskunde programako gaietako bat zen. Bildu, oster, ez da ados agertu ereduagaz.



Makinak, asteon, Elizaldeko eremuan lanean.

Ludoteka leku berean mantenduko dute azkenean

Azkaratek azaldu du lokalaren jabeagaz akordio batera heldu direla, alokairua bajatu dezan

> M.O.

Udalak ez du azkenean ludoteka Iturri kultur etxera lekualdatuko. Urriko udalbatzarrean eman zen argitara gaia, eta udalak asmo hori zeukala adierazi zuen Fernando Azkarate zinegotziak (EAJ). Arrazoi nagusia dirua aurrezteak zen. Lokalagatik alokairua ordaintzen du udalak, eta Iturrira eroanda 25.000 euro aurreztuko lukete. Gainera, zerbitzua bera defizitarioa dela ohartarazi zuen Azkaratek, ume bakoitzeko 2.300 euro gastatzen dituztelako. Bildu erabakiaren

kontra agertu zen, eta gogoratu zuen liburutegian zaratengatik kexak egon zirelako atera zutela ludoteka Iturritik. Han, leku berria Intxorta asti taldearen lokalaren izatekoa, eta asti taldekoek ere kritika egin zuten.

Gabonetan eroan gura zuten ludoteka Iturrira, eta ekainera arte proban ipini. Baina ez da horrela izango. Azkaratek azaldu du lokalaren jabeagaz akordio batera heldu direla, alokairua bajatzeko, eta modu horretan, onargarria dela ludoteka leku berean mantentzea.

Kainaberaren elkartasun jaialdia domekan

> M.O.

Domeka honetan ospatuko dute Kainabera GKEaren elkartasun jaialdia. Ohitura bihurtu da ekintza solidario hori Gabon bueltan egitea, eta bertan batzen den dirua ongintzara bideratzen dute. Aurten, Elikagai Bankuari emango diote dirua.

12:00etan hasiko da jaialdia, Hilario Azkarate pilotalekuan. Agustin Garamendi Musika Eskolak, Besaide dantza taldeak, Durangaldeko txistulariek, Eduber dantza akademiak, Txintxirri ikastolak eta plazako dantzen ikastaroko kideek parte hartuko dute, Kainaberakoek azaldu dutenez.



HELBURU BAKAR BAT DAUKAGU,
12 UNITATE
18 EGUNEAN LIKIDATZEA.



ZORIONEKO 12 LAGUN HORIETAKO BAT
IZAN NAHI DUZU?



FORD KONDIA
PEUGEOT ETORMOBIL
Otaola etorb. 20600 EIBAR
Tel.: 943 207 650
Tel.: 943 200 966



ZIORLA AUTOAK
Santamaña kalea, 19
48215 IURRETA
Tel.: 946 217 130

www.fordkondia.com • www.etormobil.com

> DURANGO

EAJri 'herri akordio' bat eskaini diote Bilduk eta Aralarrek

Alderdikeriak utzi, eta akordio estrategikoak lortzeko sasoia dela uste dute

> MARKEL ONAINDIA

2014rako aurrekontu prozesua martxan dago udalean. Bildu eta Aralarreko zinegotziek eurekin hartu-emanetan ipintzeko deia egin diote EAJri, eta hausnarke-ta sakon bat garatzea proposatu diote. Momentu larri bat bizi dela-eta, alderdikeriak utzi, eta akordio estrategikoak lortzeko sasoia dela uste dute.

“Gure proposamena ez da diru partida soil bat leku batetik bestera aldatzea. Ez da kromo aldaketa bat, gero argazki bat

saltzeko. Adostasunera helduz gero, durangarren onurarako izango litzatekeen akordio zabal-lortu dezakegu”, adierazi dute. Durangon 2011ko aurrekontuak oinarri hartuta dabil-tza udala gestionatzen. “Udala blokeatuta dago, eta gobernu taldearen kudeaketa guztiz es-kasa izan da”.

Elkarriketa martxan jar-tzen bada, herritarren partai-detza sustatuko duen dinamika iraunkor bat sortzea izango da euren lehen eskaria. Hiri Anto-

lamendurako Plan Orokorra ber-raztertu behar dela jakinarazi dute, eta hori parte-hartzearen bidez egitea eskatu dute. Gaine-ra, duela urte batzuk partaide-tza barik diseinatutako proiektu batzuk berraztertu behar direla uste dute. Horien artean, San Faustoko Zentro Zibikoa. Ohar-tarazi dute auzotarrek ez dutela proiektu hori gura, inkestetan hori adierazi dutela. Horrega-tik, aurreikusitako dirua gaur egungo beharizanetara egoki-tzea beharrezko dela uste dute.



Prentsaurrekoan, Eider Uribe, Iker Urkiza eta Jon Bingen Landabidea zinegotziak

Zilarrezko Q saria jaso du Sagrado Corazón ikastetxeak

> M.O.

Euskalit fundazioak urtero es-kaintzen dituen Kalitatearen Q sarietan Durangoko Sagrado Corazón ikastetxea saritu dute. Hain zuzen ere, zilarrezko saria eman diote.

Kudeaketaren arloko aitort-pena izan da kalitatearen saria, azaldu dutenez. Ikastetxearen gestioa Nevers kooperatibak daroa, eta esan dute “langile, gu-raso eta ikasleek lan handia egin ondoren” irabazi dutela saria. Irakasle taldea oso pozik agertu da saria jaso dutelako. Azaroa-ren 27an eman zieten sariaren berri.

Angelman sindromea duen umeari laguntza

Mugikorrak batzeko kanpaina hasi dute Durangon

> A.B.

Angelman sindromea duen ume durangar bati laguntzeko telefo-no mugikorrak batzeko kanpai-na hasi du senideen elkarteak, eta udalak bilketarako lekuak eskaini ditu. Erabilitako telefo-noak eta tabletak batuta, lagun-tzarako dirua lortu gura dute.

Gaixotasun arraro bat da Angelman sindromea: 20.000 jaioberritik batek izaten du gai-tza. Gaixotasun neurogenetikoa da; adimenean eta hizkeran eragiten du, besteak beste, eta mikroze-faliak eta konbultsioak sortzen ditu.

Mugikorrak eta tabletak uda-laren bulego hauetan batuko dituzte: Herritarren Arretara-ko Zerbitzuan (HAZ), Pinondo Etxean, musika eskolan, Lan-dakoko kiroldegietan, liburuteg-ian eta udal euskaltegian. Gai-nera, ikastetxeetan ere egongo da uzteko aukera.

Erabilitako telefonoak eta tabletak batuta, laguntzarako dirua lortu gura dute

tan irteten direnek berba bat au-keratu, *indarra* edo *aniztasuna*, adibidez, eta ingurune zehatz batean definitzen dute.

200 aleko edizioa

Argazkiez gainera, zenbait testu ere baditu liburuak. Tartean, Geu Beko gazteek idatzitakoa, senideena edota begiraleek osa-tutakoa.

Erroteta argitaletxearen es-kutik 200 ale atera dituzte mo-mentuz, lehenengo edizio hone-tan. Geu Beko egoitzan eskuratu ahal dira.

Geu Beko kideen berba eta aurpegiak, liburuan

‘Benetako berbak’ izeneko liburua aurkeztu dute

> M.O.

Geu Bek, ezintasun intelektua-lak dauzkatenen familien elkar-teak, *Benetako berbak* izeneko liburua aurkeztu zuen joan zen astean. Javier Ferdo argazkila-riak elkarteko kideei eginiko argazkiak batu dituzte libu-

ruan. Izan ere, irudi horiek in-erakusketa bat antolatu dute aurten herririk herri, elkarte-aren hamargarren urtemugaren harira. Material hori batu, eta liburu batean publikatzea era-baki zuten, eta joan zen astean atera zuten argitara. Argazkie-



Andra Mariko elizpean aurkeztu zuten liburua, joan zen martitzenean.

> ABADIÑO

Elkartasun Egunak, egitarau zabalagaz

Preso eta iheslariak etxeratzea eskatuko dute

> I.E.

Frantzia preso bost urte dara-matzen Eneko Zarrabeitia herri-kidea gogoan hartuta, Abadiño alderik alde zeharkatuko duen kalejiragaz hasiko dituzte gaur asteburuko Elkartasun Egunak: Muntzaratz eta Traña-Matiena batuko dituzte 18:30ean hasiko den kalejiran. Euskal preso eta iheslariak etxeratzea aldarrika-tzeko antolatu dute gaurko eta biharko egitaraua.

Kalejiraren ostean, esku pi-lota partidua jokatu ditzuzte, 21:00etan hasita, Traña-Matie-nako frontoian. Atxarte pilota

eskolako umeek jokatu dute lehenengo, eta binakako bi par-tidu izango dira horren ostean. Amantegi eta Badiolak Arabiou-rrutia eta Garaizabalen kontra jardungo dute, eta Beraseluze II eta Ibai Zabalak Urrutikoetxea eta Albisuren kontra.

Bihar eguerdian izango du elkartasun asteburuak segida. Euskal border erakustaldia izango da, 12:00etan, plazan, eta herri bazkaria, olinpiadak, tri-ki-poteoa eta kontzertuak izango dira, ondoren: Txapelpunk, Ghe-tto, Etxilimo eta Eskorbutoren kantak izango dira entzungai.

Abadiño Sariak Geu Be eta lau herrikideri

Abenduaren 19an, Errotan emango dituzte sariak

> I.E.

Abenduaren 19an, 20:00etan, Errota kultur etxean egingo dute Abadiño Sarien banaketa ekitaldia. Igor Urien pilotuak, Maria Blasa Belar baserrita-rrak, Normandina Alvarez eta Manuela Valbuena Caritaseko boluntarioek, eta Geu Be elkar-teak jasoko dute, aurten, udala-ren esker ona eta aitortza.

Herritarrek askotariko espa-rruetan egindako lana aitortu eta saritzea da Abadiño Sarien helburua. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, abadiñar ezagunak ez ezik, “jende gehie-narentzat ezezaguna den jen-dea” ere sarituko dute.

Igor Urien pilotuak jasoko du, aurten, Nazioarteko arra-kastaren Abadiño Saria; Ibilbi-dearen saria jasoko du premia bereziko familiekin lan egiten duen Geu Be elkarteak; Sari berezia emango diote baserriko lanari bizitza osoa eskaini dion 85 urteko Maria Blasa Belar ba-serritarrari; eta Caritas elkar-tetik herriko hainbat familiari emandako laguntza desintere-satuagatik, Normandina Alva-rez eta Manuela Valbuenari Lan isilaren saria.

Abenduaren 19an emango di-tuzte sariak, Traña-Matienako kultur etxean. Herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

> DURANGALDEA ASTEON**Kiroldegia erabiltzeko elkarteek 24 euro ordainduko dute orduko**

Abadiñoko Udalak Traña-Matienako kiroldegia erabilera zehazteko ordenantza onartu du udalbatzarrean. Elkarte eta erakundeek Astolako udal igerilekuetara jo behar dute, aurrerantzean, erreserbak egiteko. Herriko elkarte eta erakundeek orduko 24 euro ordaindu beharko dute Traña-Matienako kiroldegia erabiltzeko, eta, gainerakoek, aldiz, orduko 34 euro.

Patxi Aranbarriren eta Milikua harategiaren odolosteentzako saria

Joan zen astean Buzkantza Jaia egin zuten Elorrioren. Buzkantza txapelketan, epaimahai profesionalaren saria Milikua harategiak irabazi zuen, eta herritarrek emandakoa Patxi Aranbarri elorriarrak. Dastaketa hori elkarte gastronomikoetan egin zuten. Sei odoloste egon ziren dastatzeko, eta 150 pertsonak parte hartu zuten dastaketan.

Janaria batzeko spin bike saioa Durangon

Hilaren 20an Spin bike solidarioa egingo dute Durango Landako II kiroldegian. 17:30etik 21:30era arte orduro saio bat egongo da. Elikagai Bankurako janaria batzea da xedea. Izen-ematearen prezioa kilo bateko edo gehiagoko janari ez galkorra izango da.

Hiru hitzaldi antolatu ditu Elorrioko emakume alargunen elkarteak

Hiru hitzaldiak Iturri kultur etxean dira, 17:30etik 19:30era. Lehenengoa, *Elkartea guztiok osatzen dugu* izenekoa, datorren martitzenean eskainiko dute. Bigarrena egunean izango da, *Hitz egiten dugunean zergatik ez digute entzuten?* izenburupean. Hirugarren hitzaldia urtarrilaren 16an da, *Helduak gara, baina badakigu zer sentitzen dugun eta zer nahi dugun?* izenekoa.

> IURRETA**Uralde hortz-klinikak irabazi du V. Enpresa Proiektuen Lehiaketa**

Begoña Zubimendik bultzatutako hortz-klinika urtarrilean zabaldu gura dute



6.000 euroko sariaren %20 jaso du, astean, udaletxeko areto nagusian izandako ekitaldian.

> AITZIBER BASAURI

Begoña Zubimendik bultzatuta, Uralde kalean zabalduko duten hortz-klinikak irabazi du Iurretako V. Enpresa Proiektuen Lehiaketa. Urtarrilean zabaldu gura du klinika Durangon bizi den 30 urteko donostiarrak. Urte askoan Madril lanean egon ondoren, “etxerako bidean Iurretan hortz-klinika jartzea” pentsatu zuen. Oso pozik jaso du 6.000 euroko saria Zubimendik: “Gazteak gara, eta diru asko da hori. Hasteko gogoz nago”.

Orain arte, inorentzat lanean aritu da Zubimendi: “Orain, ni-

re kabuz jarduteko aukera sortu zait, eta saiatu egin nahi dut”. Asteon, orogarria eta sariaren %20 jaso du, zabalteko baimena lortzerakoan emango diote beste %50a, eta hortik urtebetera gainerako %30a.

Ahal den neurrian euren negozio proiektua Iurretan kokatu gura duten ekintzaileei laguntzea du helburu Enpresa Proiektuen Lehiaketak, Iñaki Totorikaguena alkateak esan duenez; “bai eta hirigunea birgaitzeko ahaleginarekin jarraitzea ere, dauden lokal hutsak betez”.

“Hutsune bat beteko du”

Lau egitasmo aurkeztu dituzte aurten, eta kanpoan geratu dira bi, baldintzak ez betetzeagatik. “Herriko premiak egokien betetzen dituen” izan ei da Zubimendirena. “Bete barik zegoen hutsunea beteko du”, Iurretako lehen hortz-klinika izango baita.

Lau egitasmo aurkeztu dituzte, eta kanpoan geratu dira bi, baldintzak ez betetzeagatik

> MAÑARIA**40 postu bigarren eskuko azokan, bihar**

17:00etatik 20:00etara bitartean garatuko da azoka

> MARKE ONAINDIA.

Udalak antolatutako bigarren eskuko azoka bihar ospatuko dute. 40 lagunek eman dute postua ipintzeko izena, eta tartean mañariarrak ere egongo dira. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara bitartean garatuko da azoka, pilotalekuan. Arropak, liburuak, pelikulak, dekoraziorako apaingarriak... Denetariko produktuak egongo dira salgai, bihar.

Jubilatuak ekintzak

Bestalde, herriko jubilatuek Santa Luzia eguna ere bihar ospatuko dute, bazkari batez. Eguaztenerako ere badaukate ekitaldi bat prestatuta: ikusmen eta entzumeneko osasunaren inguruko berbaldia. Lorea Iriondok eskainiko du, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, jubilatuen egoitzan. Amankomunazgoaren Nagusien Sailak sustatu du hitzaldia.

> IZURTZA**Webgune berriagaz udaleko tramite asko Internet bidez egin daitezke**

Baimen eskaera eta errolda aldaketa, esaterako, webgunetik egin ahalko dira

> JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko Foru Aldundi-ko BiscayTIK ekimenaren barruan egindako elkarlanari esker, Izurtzako Udalak webgunea eraberritu du. Helbidea aurreko bera da (www.izurtza.net), baina “plataforma modernoagoa, intuizio handiagokoa eta erabilgarriagoa” dela adierazi dute egileek.

Abantaila nagusietako bat da udaletxearekin askotariko tramiteak Internet bidez egin

ahalko direla. Webguneak horixe du helburu nagusienetako bat. Ataletan banatuta, guztira, 62 udal tramite eskaintzen ditu: errolda edo bizileku aldaketan jakinarazpenak, askotariko baimen eta lizentzia eskaerak, diru-laguntzen eskaera, kexak eta iradokizunak...

Udalerriko informazio osoa

Webguneak, tramitazioak errazteaz gainera, udalerriko informazio osoa biltzen du atalka

banatuta. Goialdean, “Bizi izan” atalaren barruan, kultur eskaintzak, udaleko ikastaroak eta autobus garraioko ordutegia agertzen dira. Ondoan, herriko enpresa guztien gaineko informazioa jaso daiteke, eta hirugarren atal batean herriko toki turistikoaren eta jairik garrantzitsuenen gaineko informazioa irakurri daiteke.

Gainera, beste atal batean udalbatzarretako akta guztiak eskuragarri ipini dituzte.



► Berbaz

Sabino Angoitia | Argazkilaria | 79 urte ditu

“Anaiei eginiko omenaldi moduko bat da erakusketa; eurei gustatuko litzaieke”

Ia 60 urtean eduki zuten Foto Sol argazki denda Angoitia anaiek. Euren argazki kamerek hamaika kuadrilla, kirolari edo ezkontza izoztu dituzte. Argazkien aukeraketa bat egin du Sabin Angoitia, eta Ezkurdiko erakusketa aretoan ikusi ahalko dira domekara arte.



“**Nortasun agirietarako argazkiak ukitu egiten genituen, ahalik eta guapoan agertzeko**”

zeuden txorizo batzuk hartu, batu, eta poltsara sartu zizkidaten. Argazkiak batzera etorri zirenean, ea zenbat zen galdetu, eta esan nien: “Txorizoak gozoak egon dira, eta eroan, eroan argazkiak”. Horrelaxe izaten zen: trukean.

Orain Photoshopa-eta daude, baina zuek ere moldatzen zenituzten argazkiak.

Ukitu bat egiten genien. Nortasun agirietarako argazkiak ere ukituta bidaltzen genituen, ahal zenik eta guapoan jartzen genituen. Karneta egiten zen lekuan argazkia ikusi, eta esaten zuten: “Durangokoa zara?”. Gure ukitua ezagutzen zuten.

Egunkarietara ere bidaltzen zenituzten argazkiak?

Bai. Europa Presseko karneta geneukan, eta hemendik zer edo zer pasatzen zenean, argazkia atera behar izaten genuen. Matienan Zabala bahitu zutenean [1972an bahitu zuen enpresaria ETAK], Madriletik deitu ziguten, Europa Pressetik, argazki eske. Argazkiak egin, errebelatu, eta argazki-filmen klipseak [negatiboen zatiak] bidali genituen. Sondikara joan, aireportura, eta baserritar bati eman genizkion. Madrilen aireportura joan zitzaizkion argazkiak hartzera.

Orain jubilatuta zaude, baina ibiltzen zara argazki makinagaz.

Orain hobytzat daukat, jailetako ekitaldiei edota paisaiei egiten dizkiet argazkiak. Astia daukadanez, basora joan, eta ikusten dut agian ordu erdi itxaronda, lainoak mugitu eta argazki hobia irtengo dela. Lehen presagaz ibiltzen ginen beti.

> AMAIA UGALDE

Aspaldiko eta duela gutxiko argazkiak ikusten, erakusketa gelara sartu-irtenean hainbat durangar ibili da asteon. Foto Sol argazki dendako laborategietan errebelatutakoak dira euretako asko. Sabino Angoitia anaiekin hasi zuen ofizioaren zati bat dago hormetan.

Zer moduz doa erakusketa?

Ederto doa. Erakusketa egiteko Jose Luisek [Martinez de An-tonañan] berotu ninduen; esaten zidan argazki onak eduki behar nituela, eta erakusketan ipini behar nituela. Baserrian [Santa Apolonian] hasi nintzen kutsak zabaltzen, eta ez nuen uste hainbeste argazki edukiko genituenik. Anaia biak hil zitzaizkidan, eta hau eurei eginiko omenaldi moduko bat da. Eurei gustatuko litzaieke horrelako erakusketa bat egitea.

Ia hirurogei urte egin zenituzten Foto Solen. Zelan hartu zenuten denda?

Bigarren anaia [Jon] soldadu egon zen Madrilen, eta han ikasi zuen argazkigintza. Etorri zenean, Alfonso Soldevilla argazkilariaz egin zuen berba. Foto Sol berak zeukan; Soldevi-

lla izan zelako eduki du dendak Foto Sol izena. Hark udaletxean beharra egiten zuen, eta anaia-ri esan zion dendarekin geratu gura bazuen, geratzeko. Jonek beste anaia-ri [Jose Luisi] esan zion, eta animatu egin ziren. Ni soldaduska ostean hasi nintzen.

Erakusketan, argazki asko kirolaren ingurukoak dira.

Bai. Kulturalagaz asko ibili gara. Afizio handia eduki genuen. Joaten ginen Miranda de Ebro-ra, Gernikara... Autobusez jarraitzen genituen, Astarloaren autobus zaharrean. Parrandak egiten genituen. Etxean txopo sikuekin karrakak egin, eta animatzera joaten ginen. Gainera, futbolariak Durangokoak ziren, eta lagunak genituen. Kirola asko landu dugu, bai: txirrindularitza, pilota... Denetarik egin dugu.

Ezkontzetan ere askotan ibilitakoak zarete.

Vespagaz joaten nintzen ni, baita elurtza handiak egiten zituen ere: Urkiolara eta Oñatira, adibidez. Gazte denbora zen hura! Anekdotak pilo bat ditugu: Urkiolan Mendibe abadea egon zenean, neskei ez zien eskotearekin elizara sartzen uzten.

Abadea atean ipintzen zen, eta “zu barrura, zu kanpora, zu barrura, zu kanpora” aritzen zen. Aukeratu egiten zituen. Ezkontzako gonbidatuen erdia kanpoan geratzen zen. Erastunak ipintzen zituztenean argazkiak egin eta gero, kanpora irteten nintzen, kanpoan geratutakoei ere argazkiak egitera. Esaten nien: “Zuek ere ezkontzan zaudete, eta...” Horrela asko. Andreak prakekin hasi zirenean ere Mendiberi ez zitzaion gustatu. Azkenerako onartu zuen, baina kostatu zitzaion. Urkiolan belaunetik gorako elurtzak zeudenean ere gogoratzen ditut ezkongaiak: oinez, txaketak kenduta eta dardaraka igotzen ziren.

“

Urkiolan, Mendibe abadeak neskei ez zien eskotearekin elizara sartzen uzten. Boda erdi geratzen zen kanpoan”

Inguruan argazkilari gutxi egonik, zuek asko mugitu behar izango zenuten.

Ezkontzetara Logroñoraino eta Burgoseraino joanda nago ni. Euskal Herri osoan ibilitakoa naiz. Gainera, lehenago, taxi-gidaria eta argazkilaria gonbidatu egiten gintuzten bazkaltzera, eta ezkonberrien mahaietan jaten genuen. Batzuetan ezkontza bi ere izaten genituen asteburu berean, eta bietan jan behar!

Anekdotak ugari izango dituzu...

Lehen jaunartzetan, tamaina askotako argazkiak egiten genituen. Umeei handia gustatzen zitzaion, baina amek esaten zuten ezin zutela handia hartu, garestiena zelako. Eta, hala ere, guk handi bat egiten genien. Argazkien bila etorri, eta “ene Jesus! Nik ez dut hau eskatu, e...” izaten zen erantzuna; ama urduri jartzen zen. Eta orduan guk erantzun: “zuk ez, baina umeak bai”, eta eman egiten genien. Lehen familiako argazki asko egiten ziren, eta, behin, gogoratzen dut Arratitiatik deitu zigutela. Denda itxi, eta hara joan nintzen. Gero eurekin afaritan geratzeko eskatu zidaten, eta nik ezetz, joan egin behar nuela, eta ezkaratzean eskegita

EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar. Nukleo.

Mutilentzako eskaintza

Amaia Salazarrek Nukleo ile-apaindegia dauka Elorrión. Mutilentzako joera eta aukerez berba egin du, eta bertan daukaten produktu sail bat ere aurkeztu du.

Zelako estiloa daukate ile-apaindegira doazen mutilek?

Hemengo mutilak nahiko ausartzen direla esango nuke. Baina, beharbada, ez dute joeran dagoena eramaten. Askotan modan dagoena bai, baina pixka bat aldatuta.

Ohiturak aldatzen dabiltzala esan ahal da?

Bai, ohiturak asko aldatu dira. Lehen denek berdin moztzen zuten ilea, baina, orain, beraiek eskatzen dute gura duten estiloa.

Eta zer eskaintza daukazue mutiliei begira?

Orain mutilengan pentsatutako produktu sail berri bat daukagu. Ilerako argizariak, gelak, edo buru-azalerako tratamenduak; besteak beste, zahiri, koipeari edo ilearen erorketari aurre egiteko. Lehenengo ile zuriak disimulatzeke apar bidezko tratamendu bat ere badaukagu, oso eroso eta praktikoa dena. Hau guztia, gizonengan pentsatutako diseinu eta usainarekin. Anima zaitzete mutil guztiak, zuek ere ilea zaindu behar duzue eta!



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



HERBORISTERIA eta DIETETIKA



Profesional onenak zure zerbitzura!

Iritzia

> GUTUNAK



gutunak@anboto.org
eguztzeneko 17:00ak arteko epea

Kanpoko igerilekuei buruzko irakurketa

Azaroan hastekoak ziren kanpoko igerilekuen obrak. Ezer gutxi esan dezakegu orain, izan ere, EAJk enpresa bat kontratatatu eta “prozesu parte-hartzaile” bat jarri zuen martxan aurreko ikasturtean. Zalantzan jarri dezakegu, hala ere, prozesu parte-hartzaile horrek herritarron parte-hartzea bermatzen duen ala ez. Eta zer gutxiago, herritarron parte-hartzea bermatzea baino, kontratatutako enpresaren gastuak ordaintzeko udaleko dirua erabili denean. Eta, batez ere, eman al zaio behar besteko garrantzia herritarron iritzia jaso eta kontuan hartzeari? Ez.

EAJk bere azken aldizkarian adierazi bezala, kanpoko igerilekuak eraikitzea hauteskundeetako promesa garrantzitsuenetakoa bat betetzea da. Aurtengo aurrekontuen proposamenari begiratzea besterik ez dago EAJren lehentasunak zeintzuk diren ikusteko. Eta badago arlo bat guztien artean nabarmentzen dena, 1.600.000 euroko gastua aurreikusten duena. Egungo testuinguru ekonomiko eta sozialaren berri duen edonork pentsa dezake dirutza hori enpleguaren sustapenean, hezkuntzan, osasunean edota behar sozialetan inbertitzeko dela. Bada, ez. Kirol arloa da gainontzeko guztien artean nabarmentzen dena. Eta, berriz ere, pentsa dezakegu herriko beharren arabera osatutako kirol proiektu integral batean lehentasunak izango liratekeenei erantzuteko dela, herriko kirol elkartei laguntzeko, Multikirola proiektuari bultzada emateko, edota, behingogatik, kiroldegiko zerbitzua bideragarria eta guztiontzat eskuragarria izan dadin pausoak emateko dela. Bada, sentitzen dugu, baina oraingoan ere, ez.

Dirutza honen zati handiena kanpoko igerilekuentzat da, urtean gehienez 40 egunez erabili ahal izango dugun aisialdiko zerbitzu batentzat. Eta, noski, aurrekontu hauetan ez da islatzen obren kostua osotasunean (1.600.000 euro): mantentze lanak, irisgarritasuna... Gazteak gara, eta ezinbestean etorkizunera begiratzeko dugu. Gustatuko litzaiguke intelektualki eta pertsonalki gartzan lagunduko liguketen ikasketak burutzea, baldintza duinetan lan egitea, gure bizi proiektu propioa garatzeko etxebizitza bat alokatzeko aukera izatea, genero, sexualitate edo arrazagatik baztertuak izango ez garen jendarte batean bizitzea, esparru guztietan euskaraz aritu ahal izateko borrokan ibili behar ez izatea...

Baina, gaur egun, ingurura begiratu bestelakoak ikusten ditugu. Badaude ikasketak alboratu behar dituzten gazteak, eurek edo euren familiarekin ezin dituztelako ordaindu matrikula eta garratzaio gastuak; beste asko kontraturik gabeko lanetan daude, ordu gehiegi edo gutxiegi sartu beharrekoetan, edota iraupen gutxiko kontratuak dituztenak; badaude gurasoen etxean bizi direnak egungo diru-laguntzak adarjotze hutsa direlako; emakume, homosexual edo jatorri kultural ezberdinekoak izateagatik indarkeria eta bazterketa jasaten dutenak ere badaude; eta badaude batzuk erakundeetara jotzen duten bakoitzean amorratuta sentitzen direnak, arrotza zaien hizkuntzan jardutera behartzen dituztelako.

Gazteok kontziente gara egunerokoan jasaten ditugun zapalkuntzez, eta argi gera dadila: ez gaude inork gu salbatuko zain. Baina amorratzen gaitu ikusteak gure etorkizunak bost axola diela hauteskundeetako promesa betetzen tematzen diren horiei.

Elorrioko Ernai

Olatua

Durangoko Azokako egunetan bere ekarpena egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu: Olatuan parte hartu eta lagundu zenutenok, txandak egiten ibilitakoak, babesa eman zutenak... Interneten (www.olatua.net) ikusgai dago Olatuaren bideoa; ederra izan zen! Azkenik, urtarilaren 11n Bilboko kaleetan itsasoa sortzeko deia egiten dizuegu. Animo! Tantaz tanta, itsasoa gara!

Tantaz tanta herri ekimena

Ana Otadui Elorrioko alkateari

Bere kargu hartze ekitaldiko hitzaldian, eta zer nolako aurpegi gogorrarekin, Ana Otadui elorriar guztien alkatea izango zela esan zuen, ideologiei begiratu gabe. Bistan denez, bere burua ziritzen ari zen. Anak, guztion alkateak, hautagairik bozkatuena izan gabe eskuratu zuen alkatetza. Berez, PNVk emaitza kaskarrak izan zituen hauteskunde haietan, baina Anak, zalantzarik egin gabe, bat egin zuen muturreko eskuinarekin, Carlos Garcia PPko zinegotziarekin, Bilduri alkatetza kentzeko. Eta denok dakigunez, Bilduk botoetan emaitzarik onena lortu zuen.

Zein burutan sartzen da Elorrio bezalako herri bateko udaleko gobernu taldearen ardura nagusia PPko zinegotzia pozik edukitzea eta bere zelebrekeria guztiei men egitea izatea? Arbasoen Elorrio, Elorrio berdea, Palazioen Elorrio, Elorrio arkitektonikoa, atseгина, adeitsua, Elorrio poteoan, Elorrio udan, musika eta airea. Mesede kaskarra egiten dio gure herri enblematikoaren promozio turistikoari Espainiako tertulietan ahotik botatzen duen zabor guztiak. Eta Anak eta bere gobernu taldeak, amen, amen.

Itzul gaitezen guztion alkatearengana. Ana ideologia eta pentsamolde guztietako herritarren alkatea ez dela garbi uzten duten azken erakusgarriak benetan min ematen duten horietakoak dira; mingotsak, barruraino iristen direnak. Elorrioko hainbat herritarren zintzotasuna, segurtasuna eta askatasuna baitaude jokoan.

Portalekua, gure bigarren etxea, herritar askoren elkargunea, epaitzen ari dira Madrilen, ETA finantzatzea leporatuta. Agian itxi egingo digute, akaso, herriari hainbeste ematen dion elkartarik gabe geratuko gara. Kontzertuak, txarribodak, antzerkia, mus txapelketak, jardunaldi mikologikoak, eta, batez ere, estimua eta giro ona. Hori guztia, eta hori guztia bakarrik leporatu diezagukete. Zer delitu egin dugu? Beno, bada, norbaitek uste al du Ana Otadui zerbait axola zaiola erakutsi duenik? Zerbait galdetu digunik? Telefono dei triste bat ere ez. Ez “zer moduz?”, ez “zerbait behar duzue?”... Ezertxo ere ez.

Ibai Esteibarlanda bere militantzia politikoagatik epaitzen ari dira Madrilen. Han 70eko hamarkadako legeek indar betean jarraitzen dute: gaztea eta independentista izatea delitua da. Eta Elorrioren, bere instituzio gorenetik, jarrera berbera. Mutu guztiak. “Purutzuren” egoeraz galdetzeko dei bat ere ez. “Nola dago? Zerbait egin dezakegu?”. Ezer ere ez.

Azaro hasieran Elorrioko zenbait herritarri eraso egin zieten Cadizko Puerto I kartzela atarian, Anton Lopez, 26 urte kartzelan egin ostean, jasotzera joan zirenean. Irudi penagarri haiek telebista guztietan emititu ziren. Milaka etxetan ikusi zituzten, baina Ana lanpetuta egongo zen, afari saihestezinen batean, azken orduko ezustekoren batean. Dei ziztrin bat ere ez nola geunden galdetzeko. Hori ere ez!

Honek guztiak gogoeta bat egitera eramane gaitu eta gure alkate golpistari zuzenean adierazi nahi diogu: Ana Otadui, ez zara hitz eman zenigun alkatea. Zuri Elorriok eta bere bizilagunek ezer gutxi inporta dizute. Zuretzat Elorrioko alkatetza foro handira iristeko tranpolina besterik ez da (amaituko al dituzu igerilekuak hauteskundeetarako? Nor gonbidatuko duzu inauguraziora?).

Foro handi horretan bai, Gernikako arbolen kimuaren gerizpean, Lakuan edo Madrilen harritzko lehoien artean eskailerak igotzen, horietan egongo zara zu pozik eta gustura. Botere egarria da, zure karrera politikoa da. Itxura polita dauka, garrantzitsua da, baina ezin da hori egin edozein preziotan. Herri honetako biztanle askoren ustez, ez zara eta ez duzu ordezkatzan botere demokratiko bati eskatu behar zaiona. Eta orain zuek segi zoru etikoez hitz egiten *Deian* edo *Interreconomian*. A ze pareia... eta lasai, denborak jarriko gaitu bakoitza bere lekuan!

Elorrioko Ezker Abertzalea

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Durangoko Etengabeko Arreta Gunea larrialdietan

Anbulatorioko langileek eskatu zituzten moduan, aurtengo maiatzean mozio bat aurkeztu genuen Durangaldeko udalerrietan, eta onartu egin zen. Mozio horren bidez, Eusko Jaurlaritzari eskatu genion barruko eskualdean bi anbulantzia medikalizatu gehiago izatea. Gaur egun eskualdean dagoen anbulantzia medikalizatu bakararra Gernikan dago, eta urrutiko samar geratzen zaigu larrialdietan. Horrez gain, erizain lanpostu bat eskatu genuen, erizaintzako langileen zerrenda osatzeko. Elkartasuna adierazteaz gainera, kezka agertu genuen, Etengabeko Arreta Guneako (EAG) langileen lan baldintzak zirela-eta. Bestetik, konpromisoa hartu genuen gure gain, herritar guztiei kalitatezko osasun-laguntza bermatzeko, eta Etengabeko Arreta Gunean sumatutako gabezia eta arazo guztien berri Osasun Sailari jakinarazteko.

Orain dela gutxi, aurreko azaroan, Osakidetza zuzendariak Eusko Legebiltzarrean esku hartu zuen batean, barruko eskualdeko Lan Osasuneko batzordeak, EAGko langileen ordezkartzan, berriz salatu zuen langile horiek egunero-egunero lanean aurkitzen duten egoera larria, eta Osakidetza zuzendari nagusiak eskaturik, informazio espedienteak abiarazi dituztela osasun arloko langileak ikertzeko, prentsan ustet egin dituzten adierazpenak direla-eta. Hori guztia kontuan izanik, beharrezkoa iruditu zaigu beste mozio bat aurkeztea, langileei elkartasun eta laguntza osoa erakusteko, Eusko Jaurlaritzari Durangaldeko hainbat udalerrietan onetsitako mozioak gogora ekartzeko, eta anbulatorioko langileei abiarazitako espedienteak ezaba ditzaten eskatzeko.

Argi eta ozen esaten dugu ez garela geldituko erabiltzaileek eta langileek larrialdietako zerbitzu duina izan arte.

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko abenduaren 13a
11. urtea - 526. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Unai Iturriaga | Durango, 1974 | Bertsolaria

Igor Elortza | Durango, 1975 | Bertsolaria


“Jendearen gogoan geldituko den fundamentuzko zer edo zer egitea da helburua”

Iturriaga eta Elortza durangarrek hitzordu garrantzitsua dute domekan, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean

> ITSASO ESTEBAN

Finalurrekoetan ibilbide ezberdina egin duten arren, finalean bat egingo dute. Txapelketa nagusia zeinen zorrotza den ondo dakite biek. Iturriaga bosgarren aldiz iritsi da finalera eta Elortza hirugarrenez. Bizkaia ekarriko ote dute txapela?

Zelako gorputzaldia duzue?

Unai Iturriaga. Nahiko lasai nago. Une honetan esango nuke kezkarik handiena egunotan dudun katarroa dela. Jakina, han fundamenduzko zer edo zer uztea gurako nuke. Egunak askorako ematen du, eta aukera faltagatik ez da izango. Pena izango litzateke han egon izan ez bagina legez pasatzea.

Igor Elortza. Birritan egon naiz han, eta justu horixe da lortu ez dudana. Agian 2001eko Donostiako belodromoko kartzelakoagaz bai. Jendearen gogoan geldituko den zer edo zer egiteko gogoz nago. Zentratzeko gogo daukat, Durangoko Azoka eta elkarrizketekin ibili gara-eta.

U.I. Egia esan guri Azokak ez digu batere mesederik egiten. Beti hortxe harrapatzen gaitu.

I.E. Data aldatu beharko dugu [barrez].

Finalurrekoetan zelan sentitu duzue zuen burua?

I.E. Tolosara saio on-on bat egiteko gogoz joan nintzen, neugatik eta baita jendearengatik ere. Txapelketarako prest nengoe-la frogatu gura nuen. Eta egin behar nuena eginda uztearen sentsazioagaz, pozik irten nintzen, eta ez modu tonto batean. Donostian, Alaia Martin eta Aitor Sarriegi aukerekin zeuden, eta tentsioa zegoen.

U.I. Tolosara trankil joan nintzen. Trankilegi, agian. Freskura eman zidan horrek, baina, bestetik, torlojuak estutzearen falta ere izan nuen. Nire betiko marka utzi nuen, poto birekin. Baina, oster, bertsoan gustura ibili nintzen. Trankil, ordura arte sufrimendurik barik joan nintzen. Elizondorako gogora etorri zitzaizkidan zeintzuk izan ziren txapelketara joan gura ez izanaren motibo guztiak.

Jokatuko duzuen azkenengo bertsoalri txapelketa izango al da?

U.I. Garbi daukat hau azkenengo txapelketa dela, bolada baterako behintzat. Duda barik. Horrek ez dit finalerako gorputzaldia aldatzen edo finalean egin gura dudana baldintzatzen. Saiatuko naiz ahalik eta ondoen egiten. Egia da badagoela txapelketek eragindako neke bat. Bola da baterako edo bizitza osarako

agurtuko naizenez, hain justu, gurako nuke final on bat egin. Denok gura dugu hori.

I.E. Nire kasuan ere aukera handiak daude azkenengo txapelketa izateko. Iaz irailean hasi nintzen txapelketan. 20 urtetik gora daramatzagu bertsotan eta banuen arantzatxo bat Euskal Herriko Txapelketa Nagusi baten nire onena sekula eman barik egotearen sentsazioagaz. Aurkezteko motibazioa, iazko Bizkaikotik, horixe izan da. Orain arte finalurrekoetan egindakoagaz gustura nago. Neurri batean hori lortu egin dut. Txapelketa batean irabazteko modu asko daude, eta finalera sartuta nire helburuetako bat bete dut.

Zure kasuan, Unai, ‘Berria’ egunkariko elkarrizketa batean azaldu zenituen txapelketan parte hartzera bultzatu zaituzten arrazoiak.

U.I. Elkarrizketa hartan esan nuen izena eman nuela, neurri batean, lana galtzeko beldurra-rengatik. Lehen ez genituen ardurarik batzuk ditugu, familia eta kreditu etxeekin harremanak. Bertsolaritzak, nire ogibide moduan, denboragaz gero eta pisu gutxiago du, baina oraindik badauka. Beste egoera batean ziurrenik paso egingo nuke. Baina

jakina, ez da hori bakarrik. Era berean, lana da, bizibidea da. Fokotik kanpo gelditzearen beldurra ere badago. Lehen ere ez nabil plazan gorantz egiten, eta txapelketak ez du dena aldatzen, baina izen berriak ateratzen ditu. Ogibide moduan ezer finkorik ez badaukazu, zalanza horiek agertzen dira.

Zelan prestatu duzue txapelketa?

I.E. Txapelketa batek norberak bere bertsokerari estutu bat emateko aukera ematen du. Txapelketak jartzen dituen baldintzengan pentsatzea garrantzitsua da. Plazan, gaiak batzuetan guretzako izango direla jakinda jartzen dizkigute. Txapelketan edonorentzat tokatu daitezke, pertsonalizazioa zero da. Buruan eduki behar den aukereta-ko bat da egin gura duzun hori egiteko zero aukera egotea. Eta berdin-berdin saiatu behar duzu ahalik eta bertsorik onena botatzen. Ehiztariaren kasuan bezala, gaia entzun eta ernegatzen bazara, hiru bertso pikutara bota ditzakezu.

U.I. Txapelketak eskatzen du bertsoarekin zuzenean lotutako entrenamenduaz gainera, txapelketagaz denbora galtzea. Abantaila bat daukagu, esperientzia bat badaukagula, eta

horrek Igor, zuk esandako ondorioetara heltzeko balio du. Txapelketan baldintza batzuk daude gaiei eta kantukideei dagokionez, eta horren aurrean balen aurkako txaleko on bat eduki behar duzu. Ez da paparra bistan joateko leku bat. Sarritan neuri ere ahaztu egiten zait, eta jarrera horrekin irabazten dira lehenengo puntuak. Datozen gai guztiak dira onak, hori da epaitzen dena, hiru bertso bota behar dira, beraz, laugarren ideia on bat izateak ez du balio, eta atzean zaudenean besteentzako ideia on bat bururatzeak ez du balio.

Txapelketa egunean zer egiten duzue tentsioa kentzeko.

I.E. Goiz jaikitzea gustatzen zait, bestela, bazkalorduan oraindik erdi lo egoten naiz. Egunkaria irakurri eta Bitáño-Larrinagatxu inguruan bueltatxo bat ematea gustatzen zait. Finalera goiz joan behar garenez, pasealdi txikiren bat emango dut, agian, Tabiratik.

U.I. Aurtan, birritan, Durangoko kaleetatik agurra pentsatu guran itzezlezko pasealdiak eman ditut umeekin. Kale guztiak pasatu eta agurra pentsatu ez. Hori bai, bertso handiak egin ditut kartzelako gaiak imajinatu, baina gero gaia tokatu ez!

> MUSIKA

‘Hautsi... eta izan zaitez zu’ disko berria aurkeztuko du Dambak

Durangoko Plateruenean aurkeztuko du disko berria Dambak, gaur, 22:30ean



Euskal Herriko eta Kubako zortzi musikarik osatzen dute Damba musika taldea.

> ITSASO ESTEBAN

Azaroan kaleratu zuten bigarren diskoa aurkeztuko dute Damba taldekoek, Durangoko Plateruenean, gaur. *Hautsi... eta izan zaitez zu* izena du diskoak, eta emakumearen inda-

rraren isla izan gura du. Diskoaren aurkezpenean taldekideek esan zutenenez, zuzenekoak dira taldearen indargune nagusia: “Abestietan, festarako gogoa eta alaitasuna transmititu” nahi dituztela azpimarratu dute. Errit-

mo biziak eta kultur nahasketa eskainiko ditu Damba taldeak, Durangoko Platerueneko gaurko kontzertuan. Rock, blues, punk, reggae, saltsa edota funk estiloko kantak dauzkate, ukitu kubatar nabariagaz.

Emakumeen gaiaz aparte, aurreko diskoan bezala, beste gai sozial batzuez ere badihardu Dambak disko berriko kantetan. Emakumezko bi dira taldeko abeslariak: taldea osatu zutenetik abeslari lanetan diharduen Estitxu Pinatxo, eta duela urtebetetik taldekide duten Aitziber Estanga.

Erritmo biziak eta kultur nahasketa eskainiko ditu Damba taldeak, gaurko Platerueneko zuzenekoan

Pinatxo eta Estangagaz, Euskal Herriko mendebalde zein ekialdeko beste sei musikaririk osatzen dute Damba taldea. Durangaldeko lagunen kolaborazioa ere izan dute bigarren disko honetan: Miren Amuriza Berrizko bertsolariak idatzi ditu letra gehienak. Hain zuzen, “disko honetan letrak indartsuagoak” direla azpimarratu zuten musikariek aurkezpenean.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea



Panta rei

Hil berezia ei da abendua. Ez da sekula samurra denboraren orratzetan ez makurtzea, nostalgiaz blaitzea. Lurtar bati aditu nion behin azaroko egunak tristeak direla, hildakoak oroitzeko egun batekin hasten dela, eta gero denbora hutsik pasatzen dela, lore guztiak zimelduz doazen heinean. Betea da, ordea, abendua; edo betearazia.

Egoerak eztanda egiten du, lehertzen da burbuila aurpegian eta hasten gara uger egiten euskarazko egun guztietatik Durangoko Azokako estasira, olatutik uholdera, erauntsiaren erdian zutik, gu geu garelako erauntsia bera.

Eta, aurten, ufara hauspotuko duen finala; eskuz eta hankaz dardara hedatuko da Barakaldotik mundura. Gero, *bidxamonak* eta ajeak pasatuta, bakoitza bere beirazko kutxan gotortuta umetan bahitutako kilkerrak bezala, kaosaren zantzurik ez agerian. Puntu gorenetik hesitu bako amildegietara, bere baitara erortzen den putzua bezala; helmugari baino ez diogulako begiratzen, beti ortzemugari, bidea bera bitartekotasunera mugatuz.

Botila ez dago erdi beteta edo erdi hutsik, zuloa du eta ez dakit, bada, adabakia jartzea den irtenbidea, sarbidea.

Udagoienari ostu dizkiodan orbelek in oroitzen ditut abenduan lurrera deituak izan direnak, batez ere Mikel, Xabier eta Madiba; armak eta hitzak, hitzak iskilu, berbek ez dute oinazearen zauria orbaintzen, baina eramangarri egiten dute.

> DURANGOKO AZOKA

“Jende asko ibili da guneetan: ikaragarria izan da erantzuna”

Durangoko 48. Azokako gune guztietan jendetza ibili dela azpimaratu dute



Ikasleen egunaren arrakasta nabarmendu dute Durangoko Azokako guneen arduradunek. T.Angoitia.

> J.G./I.E.

Durangoko 48. Azokaren oso balorazio baikorra egin dute antolakuntzan jardun duten Gerediaga Elkartek eta Azokako guneen ordezkariak, eta Landakogunean euren ekoizpena

aurkeztera bertaratu diren diskoetxeek eta argitaletxeek.

Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidenteak Azokaren balorazioa egiteko deituriko prentsaurrekoan esan zuenez, “jendearen erantzuna ikaraga-

rria izan da, sekulako babes eta gogoa erakutsi du: gune guztietan ibili da jende asko”.

Antolatzaileek azaldu zutenenez, bigarren eguneko arratsalderako 120.000 bisitari igaro ziren Azokatik. Gerediaga El-

kartearen arduradunek azaldu zutenenez, Dynicon sistemaren bidez neurtu dute Azokara geraturatu den bisitarien kopurua.

Guneei dagokienez, besteak beste, Ahotsenea sortzaileen plazaren kokapen berriak musikari mesede egin diola nabarmendu dute antolatzaileek. “Artistak eta publikoa hurbilago egon dira”. Ikasleen egunaren arrakasta nabarmendu zuen, bestalde, Oihane Barrutia Sargunganbarako arduradun eta guneen ordezkariak: mila ikasle inguru hurbildu ziren egunean Azokara. Guneetan jendetza ibili dela eta antolatutako ekintzetan parte hartu dutela azpimarratu zuen Barrutiak.

Joxemari Mujika Euskal Editoreen Elkarteko presidentea ere pozik agertu zen: “Azoka ondo joan dela uste dute elkarte-ko editoreek”. Bestetik, iazkoagaz alderatuz gero, salmentak mantendu, eta kasu batzuetan gehitu ere egin dituztela azaldu zuen Cristian Amorena Musika Industria Elkarteko kideak.

XVI. GABON KANTA EMANALDIA
Ctro. Palentino Castellano Leonés
Abenduak 14 · 18:00

ALBERTO SAN JUAN
Autorretrato de un joven capitalista español
Abenduak 15 · 15:00
- Bazkideak doan -

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA | Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

ABENDUAK 13 - 22:30etan 5/6 euro
DAMBA
MUSIKA KONTZERTUAK

ABENDUAK 14 20 euro bazkari txartela
13:30etan txakolin dastaketa
17:00etatik aurrera **ERROMERIA**
AIKO BAZKARI ETA ERROMERIA

ABENDUAK 15 - 22:00etan 15 euro
FINALA PANTAILA ERRALDOIAN
ETA LAGUNARTEAN ikusteko aukera
BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

Hemen agertu gura badozu

deitu!

946 217 902

Gabonak

2013



telepizza.es
el secreto está en la masa

Askatasun etorbidea, 25
Tel.: 946 218 186

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



Gabonak 2013

ABADIÑO

Abenduak 14

GABONETAKO KONTZERTUA
18:00 Errota kultur etxean

Abenduak 19

ABADIÑO SARIAK
20:00 Errota kultur etxean

Abenduak 23

UR PUZGARRIAK
17:00-20:00 Errota kultur etxean

GABONETAKO POSTAL LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
19:00 Errota kultur etxean

OLENTZEROREN KALEJIRA
17:45 Traña plazan hasita

Abenduak 26,27,28

UMEEN GABONETAKO JOLASLEKUA
11:30-13:30/16:00-20:00 Traña-Matienako frontoian

Abenduak 31

UMEENTZAKO ZINEA
17:00 Muntsaratzeko lokaletan

URTE AMAIERAKO DESPEDIDA
19:00 Muntsaratzeko lokaletan

Urtarrilak 1

MENDI TXANGOA
09:00 Traña-Matienako eliza aurretik aterata

Urtarrilak 5

ERREGÉ MAGOEN DESFILEA
17:30-20:00 Muntsaritzen hasi eta Traña-Matienan amaituta

ATXONDO

Abenduak 23

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI HARRERA
17:30

Abenduak 24

DURANGOKO IZOTZ PISTARA IRTEERA
10:00 (Aurrez apuntatu behar da)

Abenduak 27

IPUIN KONTALARIA
18:00 Udal liburutegian

Urtarrilak 2

TURROIA EGITEKO IKASTAROA
11:00 Axpeko soziedadean (Aurrez apuntatu behar da)

Urtarrilak 3

ARRIKRUTZERA IRTEERA
10:00 (Aurrez apuntatu behar da)

BERRIZ

Abenduak 24

HERRITIK KALEJIRA GABON KANTAK ABESTUZ
09:30 Olakueta plazan

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN KALEJIRA UDALETXETIK PROBALEKURA
17:30 Udaletxean

Urtarrilak 3

GABONETAKO HAUR PARKEA
12:00-13:30/16:00-20:00 Kiroldegian

Urtarrilak 5

ERREGÉ EGUNEKO DESFILEA
17:30 Komentutik Olakueta plazara

DURANGO

Abenduaren 14tik urtarilaren 6ra

JESUSEN JAIOTZA ERAKUSKETA
18:00-20:00 San Frantzisko kalea, 13 behea

Abenduak 14

GABON KANTEN JAIALDIA
18:00 San Agustin kulturgunean

Abenduak 17, 18

GABONETAKO KONTZERTUA
18:00 eta 19:30 Musika eskolan

Abenduak 20

GABONETAKO KONTZERTUA
19:00 San Agustin kulturgunean

HELDUENTZAKO IPUIN KONTAKETA
20:00 Udal liburutegian

Abenduak 21

GABON JAIA
12:00 Helduentzat; 17:00 Umeentzat; 19:00 Ospakizuna, Andra Mariko elizpean

HERRI MAITE AKORDEOI TALDEAREN URTEURRENA
20:00 San Agustin kulturgunean

Abenduak 22

ORFEOIAREN GABONETAKO KALEJIRA
12:00-14:00

GABON KONTZERTUA
13:30 Santa Ana elizan

KAPSULAK IKUSKIZUNA
18:00 San Agustin kulturgunean

Abenduak 24

ONGINTZAKO GALA
22:00 San Agustin kulturgunean

Abenduak 28, 29, 30, 31

GABONETAKO HAUR PARKEA
11:00-14:00 Landako Gunean

Abenduak 28

HAUR IPUIN KONTALARIA
12:00 (3-5 urtekoentzat); 12:30 (6 urtetik gorakoentzat), udal liburutegian

TABIRA MUSIKA BANDAREN ETA ORFEOIAREN KONTZERTUA
20:00 San Agustin kulturgunean

Abenduak 29

GABONETAKO ADINEKOENTZAKO DANTZALDIA
18:30 Landako kiroldegian

Urtarrilak 3, 4

GABONETAKO HAUR PARKEA
16:00-20:00 Landako Gunean

Urtarrilak 5

ERREGÉ MAGOEN DESFILEA
18:30 F. Juan Zumarraga

Urtarrilak 6

JAED-EN ZOZKETA BENEFIKOA
18:30 Andra Mariko elizpean

ELORRIO

Abenduak 15

KAINABERA ELKARTEAK ANTOLATURIKO GABONETAKO ELKARTASUN AZOKA
12:00 Hilario Azkarate frontoian

Abenduak 21

SANTO TOMAS
12:00 Auzoko jaiak Mendrakan

MISTER OLENTZERO ANTZEZLANA
18:00 Arriola antzokian

ORFEOIA KANTUAN
19:00 Kalerik kale

Abenduak 22

AZOKA HERRIKOIA
Goiz osoan Plazan

Abenduak 24

BADATOR OLENTZERO!
17:00 Plazan

Abenduak 25

ELIZAKO ABESBATZA
12:30 Elizan

Abenduak 26

SAN ESTEBAN OSPAKIZUNAK
12:00 Berrion

Abenduak 26, 27, 28

HAUR PARKEA ETA PATINATZEKO PISTA
11:30-13:30/17:00-20:00 Hilario Azkarate frontoian

Abenduak 29

SAN TXIBIRI HERRI LASTERKETA
11:00 Umeak; 12:00 Helduak

ZAPAAATA BILA ANTZEZLANA
17:00 Arriola antzokian

Abenduak 31

MENDI IRTEERA
09:00

DJ JAIA
01:00 Ateneoan

Urtarrilak 1

ERDELLARA MENDI IRTEERA
09:00

Urtarrilak 4

MANOVIVA TITEREAK
18:00 Arriola antzokian

Urtarrilak 5

ERREGÉ MAGOAK
17:00

GARAI

Abenduak 24

OLENTZERO EGUNA
10:00 Udaletxe aurrean irteera, etxerik etxe abesten joateko.

BAZKARIA
Eguerdian bazkaria, Otea Loran elkartearen parte hartu dabene guzientzat.

Ondoren hirigunean jarraituko da abesten

IURRETA

Abenduak 16-19

ELKARTASUN AZOKA

9:00-12:30/17:00-20:00 Ibarretxen

Abenduak 10-24

IURRETAKO GUTUN-POSTAL LEHIAKETA

Abenduak 17-19

ABENDUKO KOPIEN ENTSEGUA
20:00 Goiuria kultur gunean

Abenduak 20

ESKOLENTZAKO ANTZERKI SAIOA
10:30 1. mailatik 4. mailara
20:00 Nagusientzako ipuin kontalaria

Abenduak 23

KOPLAK ETXÉZ ETXÉ
10:00 San Migel plazan

Abenduak 24

OLENTZERORI HARRERA
11:30 Kalejira trikitilariekin
12:00 Olaburu frontoian

Abenduak 26, 27, 28

GABONETAKO UMEEN PARKEA
12:00-14:00/17:00-20:00 Olaburu frontoian
TREN TXU-TXUA IURRETAN ZEHA
11:30-13:30/16:00-20:00 Kopistegi aurrean

Abenduak 30

MUSIKA SAIOA
18:30 Goiuriko Ama elkartea
IXABEL MILLET IPUIN KONTALARIA
12:00 Ibarretxe kultur etxea

Urtarrilak 2

GABONETAKO TAILERRAK
11:30 Ibarretxe kultur etxea

Urtarrilak 3

PAILAZOAK
11:30 Ibarretxe kultur etxea
ERREGÉEN DESFILEA HERRIAN ZEHA

MALLABIA

Abenduak 24

BBT martxa
10:30 Plazan

OLENTZERO MALLABIRA DATOR!
19:00 Plazan

Abenduak 26

IPUIN KONTALARIA
18:30 Herriko tabernan

Abenduak 27

HAUR PARKEA
11:30-13:30/16:30-19:30 Kirol etxean

HITZALDIA: PAROT DOKTRINA
19:30 Herriko tabernan

Abenduak 28

MENDIBIL ABESBATZA BASERRIZ BASERRI GABON-KANTAK ABESTEN
Goiz eta arratsalde

UMOREZKO BAKARRIZKETA
19:30 Herriko tabernan

Urtarrilak 6

ZINEMA
17:00 Kultur etxean

MAÑARIA

Abenduak 20

LUR KORTA IPUIN KONTALARIA
17:30 Udal liburutegian

KANTU POTEOA
19:30 Herriko plazan

Abenduak 24

OLENTZEROREN ETORRERA
18:00 Herriko kaleetan

Abenduak 23, 24, 26, 27

GABONETAKO TXOKOA
10:00-12:00 Liburutegian

OTXANDIO

Abenduak 15

BASERRI AZOKA
11:00 Plazan

Abenduak 20

ANBROSI ETA ARGITXO OLENTZEROREN GUTUNAK BATZEN
18:00 Plazan, ondoren txokolatada

Abenduak 21

GABON KANTALDIA LEGUTIOKO ELIZAN
19:00 (Autobusa ipiniko dute bertaratzeko)

Abenduak 22

TRUKE AZOKA
11:00 Plaza nagusian

Abenduak 24

UDAL MUSIKA BANDA
18:30 Kalejiran

OLENTZERO GABON KANTUZ
19:00 Kalejiran

Abenduak 25

TXISTULARIAK
12:00 Kalejiran

Abenduak 26

LINGUA NAVAJORUM ANTZEZLANA
19:00 Gimnasioan

Abenduaren 28tik 31ra

SANTI KAPANAGAREN ARGAZKIAK

Abenduak 31

MENDI IRTEERA ARANGIORA
09:30

UMEENTZAKO TAILER ETA EKINTZAK
11:00 Kiroldegian

HERRI KROSA
18:00

TXISTULARIAK
19:00 Kalejiran

EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARRETARATZEA PLAZAN
20:00 Plazan

Urtarrilak 4

LIBRE EGUNA
Egun osoan

Urtarrilak 5

ALABATXO ANTZEZLANA
19:00 Gimnasioan

ZALDIBAR

Abenduak 24

OLENTZEROREN KALEJIRA
16:30 Udaletxean hasita, herrian zehar

Abenduak 26

SAN ESTEBAN EGUNA
18:30 Eskolako pilotalekuan

Urtarrilak 1

SANTAMARINAZARRERA IRTEERA
10:30 Udaletxeko plazan

Urtarrilak 5

ERREGÉEN DESFILEA
18:30 Olazar pilotalekutik


H
HAMPTON
OSAGARRIAK

Montevideo etorbidea, 3
DURANGO
Tel.: 946 056 295

www.hamptonosagarriak.com

 [hamptonosagarriak](https://www.facebook.com/hamptonosagarriak)

gabon zoriontsuak izan!



HAMPTON
OSAGARRIAK



Uribarri, 21
DURANGO
(zinema aurrean)
Tel.: 936 032 426



Lurrin lanpara



Mikrouhin-labea eta
izozkailua sartzeko panpinak



Kalebarria, 4
DURANGO
Tel.: 944 657 553



**UNDARRI
BIKE**

Bidebarrieta, 5 behea
IURRETA
Tel.: 946 817 808



Bizikleten salmenta
eta konponketa



Eski tailerra



amazul

Barrenkalea, 18
DURANGO
Tel.: 946 570 087





Maite
Lurrindegia eta Bitrikeridenda

Barrenkalea, 22
DURANGO
Tel.: 946570 917




JOYERIA - RELOJERIA
TABIRA

Barrenkalea, 15
DURANGO
Tel.: 946 814 295



kopilan

Barrenkalea, 8
DURANGO
Tel.: 944 669 033



ATXARTE
MENDI-KO DENDA
ESKALADA · BOULDER ·
MENDIA · TRAIL RUNNING

Santa Ana plaza
DURANGO
Tel.: 946 550 455



afede

GURE JOSTAILU-DENDA

Oparirik onena Gabon hauetan
seme-alabek, ilobek, lagunen
umeez zein zeuk jolasteko!



YAGOR KONTU KONTARI.
Elebiduna: euskara
eta ingelesa

29.99 €



TELEFONO
INTERAKTIBOA
Melodia, soinuak,
objektuak eta
zenbakiak ikasi

17.50 €



SUPERPOLY EUSKARAZ
29,95 €



HITZGURUTZATUAK
Hitz osatuen betiko jolasa.
7 urtetik aurrera.
16.90 €



LURREKO EGURREZKO
PUZZLEA
Alfabetoaren 26 pieza ditu.
3 urtetik aurrera.
12.95 €

PARTE HARTU ETA JOLAS BAT IRABAZI

*Nortzuk dira Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako
finalean parte hartuko duten bertsolari durangarrak?*

Bidali erantzuna eta zure datuak: **astekaria@anboto.org-era**

Frai Juan Zumarraga, 15 - Durango
SIMPLY supermerkatua - Durango

Zornotza: Gudari kalea, 49
Eibar: San Juan kalea, 13

GABONETAN JAI

ZORNOTZA

Abenduak 26-30

0-12 urte FRONTOIAN

Ordutegia

11:00-13:30 / 16:00-19:30

Puzgarriak, jolasak, ohe elastikoak,
irratia, eskulanak, musika...

Txikitxoekun gunek berezia (*gurasoekin*)

18:00-19:30 Egun guztietan DJ ANIMAZIOA

PREZIOA

Eguneko sarrera: 2€

5 eguneko bonoa: 8€

+10 urte EKINTZA BEREZIAK

(kontzertu gelan)

Ordutegia

17:00-22:00

Mahai jokoak, bideo jokoak,
ping-ponga, txapelketak,...

Informazio gehiago:

ametxgazteria.net

ABENDUAK 19

"Gabonetako ipuinak"

Joana Oregi Helduentzako ipuinak

17:00etan.

Bibliotekan

ABENDUAK 20

"Gabonetako kontzertua"

Zubiaur Musika Eskola

21:00etan.

Zornotza Aretoa

ABENDUAK 21

"Nun ikusiot nik
zure aurpegixe?II"

Gauero programaren Gala Berezia,
Ametxgazteriako langileak abeslari
famatuen kantak eskainiko dituzte...

ABENDUAK 24

Belatxikietara igoera

Ant.: Extrem Zornotza

Goizean

Olentzero

Ant.: Udabarri dantza taldea

18:00etan

ABENDUAK 27

Potxin eta Patxin

Ikasi birziklatzen modu erraz eta
dibertigarrian, Potxin eta Patxin
pailazoen ikuskizunarekin.

Goazen jolastera!

Zelaietan

ABENDUAK 28

"Printze zoriontsua"

Cia La Baldufa

18:00etan.

Zornotza Aretoa

ABENDUAK 29

Gabon-kantak

Herrian zehar eta Kalbarioan

"Mesias sarritan"

13:30ean.

Kalbario plaza

Ant.: Herriko koralak

ABENDUAK 30

Ipuin-kontalariak

18:00etan.

Doan

ABENDUAK 31

San Silvestre lasterketa

Arratsaldean

Ant.: Extrem Zornotza

Gabon Zaharreko

DISKOTEKA

00:15 - 03:15

URTARRILAK 4

"HANSEL eta GRETEL"

Glu-Glu produkzioak

18:00etan.

Zornotza Aretoa

URTARRILAK 5

Erregeen desfilea

17:30ean

Ant.: Herriko koralak


erakunde estatutuen zornotza





BIGARREN ESKUKO AZOKA MAÑARIAN

ABENDUAK 14, Zapatua
17:00etatik 20:00etara



Izena emateko eta informazio gehiagorako:
946818998 edo 946201538



**Mañariko
Udala**

Kirola

> **TXIRRINDULARITZA**

“Txileko taldera joateko aukera sortu zenean aprobetxatzea erabaki nuen”

Mikel Bizkarra (24 urte, Mañaria) Txileko Pino Road talde berrian (Kontinental maila) arituko da datorren denboraldian. Urtebeterako kontratua sinatu du. Orain arte Euskadi Fundazioa taldean ibili da.



Mikel Bizkarra, Mañarian; Euskadi Fundazioako elastikoagaz entrenatzen du, oraindik.

> **JOSEBA DERTEANO**

Oraindik ez du talde berriko elastikorik, eta Euskadi Fundazioakoagaz entrenatzen du. Azken urte bietan taldekide izan duen Illart Zuazubizkarregaz entrenatzera irten aurretik, **erronka berriari buruzko xehetasunak azaldu ditu.**

Zelan sortu zitzaizun Txileko taldera joateko aukera?

Taldea sortuko zutela jakin nuen, eta une horretan talde barik nengonez, eurekin hartu-emanetan ipini nintzen. Nire ibilbidea gustatu, eta eskaintza egin zidaten.

Zer dakizu taldekideei buruz?

Gehienak, zortzi bat, txiletarrak dira, eta lau espainiarrak edo euskaldunak: Pablo Urtasun, Juanjo Oroz eta hirurok euskaldunak gara, eta Salvador Guardiola murtziarra. Lehenengo biak Euskaltel-Euskadin ibili ziren aurreko denboraldian, eta Guardiola Luxemburgoko talde bateko txirrindularia izan da.

Noiz jakin zenuen taldekideen berri?

Taldera batzea gura zutela jakinarazi zidatenean eman zidaten taldekideen berri. Ordura arte, ez nekien ezer. Jende ezaguna eta esperientziaduna zegoela jakiteak animatu egin ninduen.

Jesus Buendia izango da zuzendaria. Ezagutzen duzu?

Behin egon naiz berarekin, baina badut bere ibilbidearen berri. Txirrindulari profesionala izan zen hiru urtez, 2006tik 2008ra. Eroriko batek eragindako lesio bategatik txirrindularitza utzi behar izan zuen. Harrezkero, zuzendari aritu da gazte mailako taldeekin.

Zein da zure animoa erronka berriari begira?

Esperientzia berri bat da nire ibilbidean, eta gogotsu nago. Ilusionatuta nago.

Egutegiari buruz zer dakizu?

Urtarril erdialdean edo joango naiz Txilera. Taldea aurkeztu eta kontzentrazioa hasiko dugu. Martxora arte Hego Amerikako lasterketetan ibiliko gara. Ondoren, honantz etorriko gara, eta taldeak Murtzian izango du egoitza. Martxotik aurrera, Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako, Portugalgo eta, oro har, Europako lasterketak lehiatuko ditugu. Gaztela Leon, Asturias eta Madrilgo itzulietan egongo gara, eta Euskal Herrian, esaterako, Zornotza eta Lizarrako lasterketetan parte hartuko dugu. Espainiako ia egutegi osoa egingo dugu. Etxean edo etxetik gertu aritzeak ere motibazioa ematen du.

Zer espero dute zugandik?

Txileko txirrindulari gehienak gazteak dira, eta ez dute esperientziarik European. Hemengo

txirrindularitzara moldatzen laguntzea da zereginetako bat. Horrez gainera, aldapa gora amaitzen diren etapetan ahalik aurreren ibiltzen saiatuko naiz, eta nire dohainetara egokitzen ez diren lasterketetan taldeari ahalik gehien laguntzen.

Txileko hedaduraren %80 mendizerrek osatzen dute.

Lana ondo eginez gero, alturan entrenatzeak bere abantailak ditu. Nik hiru bider entrenatu dut alturan, eta beti igarri izan dut hobekuntza. Gure egoitza kostaldean dago (Valparaíso), eta ez dakit garaieran kontentziazioz antolatuko duten.

Zuazubiskarrek Euskadi Fundazioan jarraituko du

Urtebeterako kontratua sinatu du

Illart Zuazubiskarrek (23 urte, Abadiño) Euskadi Fundazioa taldean jarraituko du. Urtebeterako kontratua sinatu du Miguel Madariagaren taldeagaz.

Mikel Bizkarraren antzera, beste aukera batzuk aztertzen ibili da. Ecuadorren sortu duten talde bategaz hartu-emanetan zegoen. Errepideko taldea osatuta zuten arren, pistako espezialista legez, Zuazubiskar taldera batu zedin interesa

Euskadi Fundazioaren auzia zelan bizi izan duzu?

Lehenengo desagertu egingo zela zirudien, eta, ondoren, jarraitu egingo zuela. Bai, ez, bai, ez... horrela ibiltzea ez zen lasaigarria inorentzat. Ilusioak egiten

“

Azken hilabeteak gogorrak izan dira niretzako eta euskal txirrindulari denentzako”

dituzu, eta asmoak aurrera irten ez badu, ondorengo etsipena handiagoa da. Entrenatzeko gogoia ere joan egiten da. Ez dago segurtasunik eta ez da erraza horrela ibiltzea. Hilabete horiek gogorrak izan dira niretzako, eta uste dut euskal txirrindulari guztientzako ere hala izan dela.

Sumatzen zenuen Euskadi taldeak jarraitu zezakeela?

Egia esateko, hasieran ez. Miguelek (Madariaga) esan zigun kontua gaitz zegoela, eta ahal izanez gero, taldea bilatzeko. Azken egunetan, ordea, entzuten nuenagatik baiezkoan nengoen.

Itxarotea erabaki bazenu...

Txilerako aukera sortu zenean horixe zen une horretan nuen aukera bakarra. Euskadik jarraitu arren, batek daki tokia izango nuen. Aukera sortu zenean aprobetxatzea erabaki nuen.

AGENDA

> **FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Oiartzun
· Domekan, 17:00etan, Tabiran.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Umore Ona
· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Bakio
· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

Iurretako B - Atxulaur
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B - Lemoaberri
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

> **ARETO FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA

Elorriko Buskantza - Zarautz
· Domekan, 12:00etan, Elorrión.

Mallabia Tabirakolor - Uxo
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarren.

MAILA GORENA

Sapuberri - Sestao
· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

Elorriko Buskantza - Kurutzia
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrión.

Presion Break - Askartza Clare
· Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Racing Tolosto - Usansolo
· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

Presion Break B - Mallabia B
· Zapatuan, 18:10ean, Berrizburun.

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Kirol Aunitz
· Domekan, 10:30ean, Landakon.

> **SASKIBALOIA**

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baque - Leioa Berri
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Julza-Zaldia - Josebar Aguilar
· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarko udal kiroldegian.

> **ERRUGBIA**

EUSKAL LIGA (emakumeak)

DRT-Urbe / Hernani
· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

> **PILOTA**

ZALDIBARKO OLAZAR TXAPELKETA (finalerdiak)

Lau 1.erdian:

- **Dario - Bakaikoa**

Binaka:

- **Urbietza-Tolosa / Onsalo-Gorrotxategi**
· Abenduaren 19an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan.

> **FUTBOLA**

Kulturalak Gabonetako kanpusa antolatu du hilaren 23tik aurrera

2000. eta 2005. urteen artean jaiotako neska-mutilei zuzenduta dago kanpusa



Kulturalako gaztetxoak futbol partidu batean sartutako gola ospatzen. Jon Iglesias.

> **JOSEBA DERTEANO**

Durangoko Kulturalak Gabonetako futbol kanpusa antolatu du 2000. eta 2005. urteen artean (biak barne) jaiotako neska-mutientzako. Udako kanpusak izan zuen harrera onaren os-

tean, futbol klubak lehenengoz antolatuko du Gabonetakoa.

Abenduaren 23, 26, 27 eta 30ean, eta urtarrilaren 2 eta 3an izango da Tabira futbol zelaian, 09:00etatik 14:00etara. Kulturalako haur kategoriako A taldea

entrenatzen duen Ivan Urnietak gidatuko du kanpusa, eta beragaz batera beste hainbat hezitzaile egongo dira. Egun horietan futbolaren inguruko solasaldi eta praktikak izango dituzte: partiduak, jaurtiketak,

alderdi taktiko eta teknikoari buruzko oinarriak eta abar.

Izen-ematea e-mail bidez (coloniasdeportivas@gmail.com) edo Kulturalaren webgunean egin daiteke: www.culturaldurango.com. Kanpusean parte hartzearen ordaindu beharrekoa 90 euro da, eta anai-arreba bakoitzeko 10 euroko deskontua egingo dute. Parte-hartzaileek, besteak beste, Kulturalako kirol materiala eta abenduaren 28an Kulturalak jokatu duen partidurako sarrerak jasoko dituzte. Plazak mugatuak dira, eta ordainketa eguna izango da oinarri plazak banatzeko unean.

> **Kiroldegiko kanpusa**

Kulturalarena ez da aukeran dagoen kirol arloko kanpus bakarra. Durango Kirolak erakunde autonomoak askotariko kirolak aurreikusten dituen beste bat antolatu du egun eberdinetan. Sei eta hamabi urte artekoei zuzenduta dago. Izen-ematea Landako 1 eta Landako 2 kiroldegietan egin daiteke. Kanpusaren kostua 60 euro da. Bigarren seme-alabarik aurrera deskontuak egingo dituzte.

Azkenik, Gertasport-ek abenduaren 23, 24, 26 eta 27an antolatu du kanpusa Iurretako Larrazkozelain, 2000 eta 2009 urte artekoentzat (www.gertasport.com).

ADITUAREN TXOKOA

Juan Carlos Perez

Areto futbol

Lehia-dibertsioa

Orain urte batzuk areto-futboleko talde kopuruak igoera nabarmena izan zuen. Lagun taldeak asko futboletik zetozenak – batu, eta federatu egiten ziren, asteburuetan lehiatu eta dibertitzeko asmoz. Teorian klubak sortzen ziren, baina praktikan taldeak ziren.

Talde batzuk mailaz igozten joan ziren, eta puntu batera heldu ziren, zeinetan eskakizun maila askoz handiagoa zen, bai kirol arloan, bai ekonomikoki. Jakina da galduz gero, gutxiago dibertitzen dela. Futbol federazioek, zeintzuei areto-futbolak gutxi ardura dien, arau batzuk ezarri zituen talde horiek klub bihurtu zitezen, antolakuntza serioago batekin. Horrez gainera, tituludun entrenatzaile bat ere behar zenez, gastuek gora egin zuten. Beraz, babesle indartsuak eta dirulaguntzak lortu dituztenek bakarrik lortu dute Euskadi mailako eta nazional mailako kategorietan mantentzea.

Talderik gehienei, baliabideak jokalariek eurek ipini behar dituzten horiei, erregionaletako mailak geratzen zaizkie. Bestela, desagertzeko arrisku handian daude. Baliabideak lortzeko diru kantitate handia eta ahalegina ipintzen dituen jokalaria bati zelan azalduko diozu ez duela jokatu, behinena irabaztea delako? Nire ondorioa da, baliabide urriko talde bat tituludun entrenatzailea behar duen mailetara heltzen denean, talde horrek arriskatu egin behar duela: edo irabaztera jokatu eta taldea apurtu, edo dibertitzeko lehiatu. Azken kasu horretan komenigarriena erregional mailan aritzea da.

> **PILOTA**

Finalak erabakiko dituzte Olazarren, eguenean

Lau t'erdi eta binakako finalerdi bana jokatu dituzte abenduaren 19an, Zaldibarren

Datorren egun iluntzean erabakita geratuko dira Zaldibarko Olazar Pilota Txapelketako finala jokatu duten protagonista guztiak. Lau t'erdian eta binakako finalerdi bi izango dira ikusgai, 21:30etik aurrera.

Abenduaren 31n jokatu dituzten finalei begira gauza bakarra da segurua: lau t'erdiko txapelaren bila ibiliko denetako bat Ander Errandonea izango da. Izan ere, finalerdietan 22-14 menderatu zuen Lopez. Bere

aurkaria nor izango den datorren eguenean erabakiko da, Dario eta Bakaikoaren arteko partiduan. Finalerdi horrek ez du faborito argirik. Bakaikoak nagusitu egin beharko luke pilotean, baina Dariok ere baditu bere armak. Esaterako, saktzaile handia da, eta min handia egin dezake.

Binakako finalerdiei dagokienez, lehenengoak atzo gauean erabaki zituzten: Igor Azpiri elorriarrak eta Kerman

Galarzak Asier Beitia eta Aitor Diez izan zituzten kontrario (emaitza www.anboto.org webgunean). Datorren eguneko bigarren finalerdian Xabier Urbietak eta Xabier Tolosa Unai Onsalo eta Aitor Gorrotxategiren aurka lehiatuko dira. Onsalok final laurdenetan hasi zuen txapelketa, sorbaldan lesioa zeukan Arrieta ordezkaturik. Urbietak eta Tolosa faborito dira, baina Onsalok eta Gorrotxategik bikote sendoa osatzen dutela erakutsi zuten final laurdenetan.

Lau t'erdian Dario eta Bakaikoaren artean erabakiko dute Errandonearen aurkaria

> **ARETO FUTBOLA**

Durango Hiria saria Sasikoa eta Labastidaren artean, etzi

Hirugarren Mailan Sasikoak areto-futbol taldeari atsedean hartzea egokitzen zaio asteburuan. Ligako partidurik ez du jokatu, baina bai Durango Hiria sariari dagokiona. Lehenengoz antolatu duten lehiaketan, Sasikoak Bastidako Atenea-Ikusnet taldea izango du aurkari domekan, 12:00etan, Landakon.

Hirugarren Mailan jokatzeko dute Elorrioko Buskantza eta Mallabia Tabirakolorrek etxean jokatu dute. Elorrioko Zarautzen aurka neurtuko da, eta Mallabia Audioko Uxoaren aurka.

katerin ardoak
inaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunaritze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIRUA

688 864 975
info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komunikatzaile 23 berrak, 1. esk. - 48.009 Durango - BIZKAIA

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Metodologiaren garrantzia ikasketa arrakastatsuak lortzeko



Sarritan irakurketa garrantzitsua dena aitortzen dugun arren, ez dugu jarduera intelektual horretaz hausnarketa sakonik egiten eta are gutxiago gutariko bakoitzaren irakurketa-gaitasuna eta irakurzaletasun maila non dagoen aztertzen.

Automatismoz jarduten dugure ohiko ekintzetan eta irakurketaren esparruari dagokionez garrantzi handia egotzen diogun arren, bizitzan zehar nekez ekiten diogu gaitasun intelektual hori hobetzeari. Nekeak eta “astirik ezak” gehiago egiten digu. Gurasoak gehiago arduratzen dira euren semeen irakurzaletasunaz eurenaz baino, baina edozelan ere bi kasuotan irakurketa maila oso kaskarra da. Behin unibertsitate mailako ikasketak burutu eta lanean hasi ondoren, irakurketa-gaitasuna eta adina alderantziz proportzionalak dira. Aldinean gora egin ahala, irakurketa-gaitasunak gainbehera egiten du.

Oro har, gure gizartean oso gutxi irakurtzen da eta gutxi irakurtzen duen gizarteak nekez aurrerabiderik izaten du. Gizarte baten heldutasun maila bertako biztanleek duten irakurketa-mailak adierazten du garbi. Irakurketa maila oso kaskarra izanak eragozpen ugari sortzen du.

Urtero gertatzen den bezala gurasoen helburu eta ametsetarik bat seme-alabek euren ikasketak gorabeherarik gabe igaro nahi izatea izaten da eta hori horrela den heinean ez da, ustez, arazo gehiegirik izaten. Egoera horrek astindu kezagarria lortzen du lehenengo “gutxi”-ak agertzen direna ikusten denean.

Tamalez gurasorik gehienek euren seme-alabek ikastetxean egindako frogetan lortutako emaitzetan baino ez dute arreta nagusia jartzen. Ikas-prozesuan kalifikazioei garrantzi handia ematen zaien arren, ez luke horrela izan behar. Kalifikazioek bere garrantzia dute baina ez

dira ikas-prozesuko gauzarik garrantzitsuenak. Baina errealitatean, kalifikazioei garrantzi handia ematen zaie. Kalifikazioak, hainbatetan, familiaren baitan larritasuna, egonezina eta artegatasuna sortzen dute batez be ikasketa-egoerak luzaroan hobera egiten ez duenean.

Egoera horrek gurasoengan berehalako erreakzioa sorrazten du irtenbide egoki eta eraginkorrik aurkitu nahi izaten delako seme edo alabaren ikas-prozesuak hobera egingo badu.

Ikaslearen egoera zuzendu eta bere zailtasunak gainditzen laguntzeko aukera desberdinak aurkitzeko dagokionez, ikastetxeen inplikazioa, oro har, hutsaren hurrengo besterik ez da izaten.

Irtenbidea ematen saiatu beharrean, eragozpenak gainditzearen egin beharra sendiaren esku ixten da, ikasturtea errepikatzea “zuen semearen onuratan” izango dena, beste irtenbiderik ez balego bezala, aukera bakartzat sarri askotan emanez.

Ikasketa gorabeheratsuak izateak, gurasoengan ardura eta zailtzak sortzen ditu eta, denboraren joanean atontzen ez badira, gero eta artegatasun nabarmen eta biziagoa sortzen dute, guraso guztien helburua euren seme-alabek oztopo barik aurrera egin dutela ikustea baita.

Artegatasun hori nabarmenagoa izaten da, ikasturtearen azken hiru hilekoan, are gehiago lehen bi ebaluaketetan izandako emaitzak egokiak izan ez direla, ikasturtea gainditu ahal izateko buruhauste eta neke asko izango dena nabarmentzen hasten denean.

Aipatutakoak bezalako gertaerak ikasturtearen azken hiru hilekoan, ikastaroa gainditzeko lan neketsu eta agian premiatsun ikaragarri eta ikaslearen eta gurasoen azken aldiko artegatasunak eraginda, ikasturtea “in extremis” ezinbestean aurrera ateratzeko kinka larrian

azaltzen dira.

Horrek guztiak ikasleengan estutasun larria sorrazten du, bereziki ikasturtearen amaieran sendiaren baitan sortutako ziurgabetasuna nabarmenagoa denean, eraginkortasunez egoera horri aurre egin ahal izateko guraso zein ikasleek euren burua gaituta ikusten ez dutenean.

Estutasunaren zio nagusiak, besteak beste, porrot egiteko beldurra, ziurgabetasun pertsonala, erru-sentimendua, motibaziorik eza, norbere autobalorazio ezezkorra, etab. dira eta, ondorioz, antsietateak dakarren egonezin latza ez da gertaeretan sustraitzen, gertaera horiekiko ikasleek dituzten pentsamenduetan baizik.

Nork bere baliabideak erabiliz egoera jakin bati aurre egin ahal izateko gaitasunik sentitzen ez duen ikasleak bere estutasun mailan gehikuntza nabarmena pairatzen du eta horrek zuzenean bere jarrerarengan eta ondorioz lor ditzakeen eskola-emaitzengan eragiten du.

Antsietate maila jaso batek, ikas-prozesuarekin zuzenean zerikusia duten arreta, kontzentrazioa, ikasteko gogoia, memoria, jarrera eta motibazioa bezalako prozesu garrantzitsuengan benaz eragiten duena gauza jakina da.

Irtenbidea lortzeko lana eta planifikazio egokia behar ditu eta horretarako, besteak beste, helburu zehatzak jarri, helburu horiek lortze aldera plangintza egokia egin, metodologia intelektual eraginkorrez jabetu, egin beharretan lehentasunak arrazoibidez ezarri lanaren antolaketa optimizatu, ekintzak eta ikasgaiak zehaztuz ikas-saioen programazioa ezarri, abiada jaso eta ulermen bikainez irakurri eta beste gainerako gaitasun intelektualak erabiltzen ikasi eta jakin behar da.

Aipatutako guztiak elkarrekin lotuta daude. Metodori ga-

beko ahaleginak oztopoak handitu besterik ez ditu egiten.

PRAKAGORRI-k bere Durangoko eta Getxoko egoitzetan [944915763] gaitasun intelektualak [Ulermenezko Irakurketa Azkarra, Ikas-metodo modernoak, Memoriaren garapena, Komunikazio eraginkorra, etab.] hobetu eta garapenerako metodologiak irakasten ditu urte guztian zehar.

Gabonetako oporrak aukera ezin hobea izaten dira gaitasun intelektualei arreta berezia eskainiz eta aro horretan beste zer egin hobarik ikasleek izaten ez dutena ikusita, ikas-prozesua ezeze irakurketa eta ulermen bikainak izateko METODOLOGIA eraginkorrez jabetzeko.

METODOLOGIA, bere izaera eta eraginagatik, eraginkortasunez lan egiteko funtsezko lanabesa da. Metodologia ezaz jarduteak, ikaragarriko ahalegina egin beharraz gain emaitza urriak izatea dakar.

PRAKAGORRIren ikastaroe-kin kontzentrazioa eta arreta hobetzen dira, esfortzu-denborari etekina ateratzen ikasten eta bestalde irakur-gaitasun jasoak garatzea lortzen dira.

Irakurketa-ulermena eta egokitasunez ikasteko metodologia egokirik eza dira, besteak beste, ikasleen hezkuntza-etekin onari eta ikasketa prozesuari berari zuzenean eragiten dien arazo handietariko batzuk. Egoera horiei aurre egiteko, ikastetxeak eskaintzen ez dituzten premiazko irtenbideak eta metodo egokiak behar dira, ikasleek euren ikas-prozesuan eta hezkuntza heziketan konfiantza osoz eta segurtasun handiagoz jardun dezaten.

Arazoei irtenbide egokirik ematean, hezkuntza sistemak eskaintzen duen teknikarik eza eta irakaskuntza zurrinak eragindako egoera gaindiezin bihurtzen direnei goia hartuz, seme-alabei ikas-prozesurako tresna egokiak eskainiz euren egitekoetan emaitza bikainak bermatuko

dizkioten METODOLOGIEZ jabetu eta ikasketetan aplikatu beharra dago.

PRAKAGORRIk egungo hezkuntza sistemak sustatzen duenaren aldera, ikasketa zein prestakuntza pertsonala ekintza atsegin, interesgarri eta erakargarri izatea eragiten dituzten irtenbide eta metodologia eraginkorrak eskaintzen ditu urte guztian zehar.

Irtenbideak ez dira berez azaltzen eta hobera egiten ez duenak kaltera besterik egiten ez duena jakinda, egun ikasleek dituzten gabezien atonbiderik ezak eta egoeraren iraunarazteak ez dakarte gabezia horiek txarrerago egitea baino besterik, ikaslearen ikasketa egokiaren kaltetan.

PRAKAGORRI, ikaskuntzan eta irakaskuntzaren eremuetan aurrerabide oro erantsi beharra dagoenaren premiatsunaz jabetuta, metodo eta teknika intelektual eraginkorrak irakasten ditu ikasleek euren gaitasun intelektualetan errotiko hobekuntza eta garapena izatea lortuz.

G a b o n j a i o t a n , PRAKAGORRIk Durangoko bere egoitzan [Barrenkale, 20] ohiko duen bezala, BI IKASTARO TRINKO eskainiko ditu: Lehena, IKAS-METODO MODERNOAK goizeko 09:00etatik 11:00etara bitartean [abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra bitartean, biak barne] eta bigarrena, ULERMENEZKO IRAKURKETA AZKARRA ikastaroa, [abenduaren 23tik 31ra bitartean, biak barne] eguerdiko 12:00etatik 14:00etara bitartean. Ikastaro biak 9/10 urtetik gorako pertsona guztiei zuzenduta daude.

Ikasleok, lanabes intelektual eraginkorren jabe izan behar duzue, horrela baino ez baituzue zuon etengabeko prestakuntza eta bizitzan zehar etengabeko heziketa, argigarri izateaz gainera, interesgarri eta erakargarri izatea lortuko.

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide

irakurri 4

ALDIZ ARINAGO

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena !
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina

Harritu zaitez
emaitzekin !



PRAKAGORRI

Reading skills

94 491 57 63

DURANGO

Barrenkale 20



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakatua.
- Pintura eta pintura apungarria.
- Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industriadan, 45 Garain A - Berri.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaioarnizatuak.com



ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.s@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15



LOREZAINZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Discinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**



San Antonio-Santa Rita ikastetxeak, ikastetxearen aurrean.

Energia aurrezteko kanpainagatik saria jaso dute San Antonio-Santa Ritan

LHko seigarren mailako ikasleek jaso dute Aktibatu+ programako saria; Global Action Plan gobernuz kanpoko erakundeak sortutako programa da, ingurumen arloan kontzientziatzeko

> AMAIA UGALDE

Durangoko San Antonio-Santa Rita ikastetxean Lehen Hezkuntzako seigarren mailan dauden ikasleek jaso dute Aktibatu+ programaren saria. Iazko ikasturtean eskolako energia aurrezteko kanpaina prestatu zuten, eta kontsumoa ia %10 murriztea lortu dute. Leloa ere izan du kanpainak: *Eguneroko keinuak txikiak izan arren, gauza handiak lor ditzakete*. Ikasgeletan inor ez dagoenean argiak amaitzea, ordenagailuen monitorea isiotuta ez uztea, berogailua piztuta badago leihoak ez zabaltzea... Gauza txiki horiek kontuan hartzeko kanpaina egin dute San Antonio-Santa Rita ikastetxean, eta Aktibatu+ programak saritu egin ditu ikasleak, izan dituzten emaitza onengatik.

%9,9 gutxiago kontsumitu dute

Pankartak, kartelak, PowerPoint programagaz egindako aurkezpenak, pegatinak eskolatik zehar... Hainbat baliabi-

de erabili dituzte ikasleek euren mezuak eskolako ikasle eta langileen artean zabaltzeko.

Gainera, jolas-orduetan eta eskolak amaitzerakoan, geletatik pasatu dira, argiak amaituta ote dauden ikusteko eta ordenagailuen monitorea itzaltzeko, besteak beste. Kanpainari esker, iazko ikasturtean 5.056 kWh gutxiago kontsumitu zituzten ikastetxean, aurreko urtean baino %9,9 gutxiago.

Saria, dinamizatzaile izateko

Global Action Plan izeneko gobernuz kanpoko erakundeak sortu du ikasle durangarrak saritu dituen Aktibatu+ programa. Horren helburua, azaldu dutenez, eguneroko ekintzek ingurunean duten eragina arintzeko kontzientziazioa bultzatzea da.

San Antonio-Santa Ritako ikasleek sari bi lortu dituzte euren lanari esker. Etxean ere dinamizatzaile izaten jarraitzeko *Liburu berdea* jaso dute, etxe-

ko jardunean energia aurrezteko gomendioak batzen dituen. Horrez gainera, Mutrikuko olatuen energia ustiatzeko instalazioetara bisita bat egiteko aukera eskuratu dute.

“Patruila berdea”


Talde lana egin dute ikasleek ekintzak garatzeko, eta kanpainagaz dibertitu ere egin direla azaldu dute. Ritxar Garcia tutoreak eta eskolako Agenda 21eko koordinatzaileak ere pozik jaso du aitortpena.

Aktibatu+ kanpainan egin duten antzera, ikasturte honetan ere ikasleak ikuskatzaile beharretan ibiliko direla azaldu du Garcia irakasleak: “Lehenago ere bageneukan Patruila Berdea proiektua, ikasgeletako argiak, berogailuak, ordenagailuak... errebisatzeko”. Patruila berezi horiek berreskuratu egin dituzte ikastetxean, eta Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleak ibiliko dira energia kontsumoa arduratsua izan dadila zaintzen.

Iazko ikasturtean eskolako energia aurrezteko kanpaina prestatu zuten, eta kontsumoa ia %10 murriztea lortu dute

